

**20. (1496-1500)**





## 20.1. 1496. URTEA

**20.1.1. Aizarnazabalgo Iñigo Eztiola erretorea Pedro Agirreren aurka**

*Errege Katolikoek* 1496-III-19an Valladolidtik Gipuzkoako agintariei agindua bidali zieten. Aizarnazabalgo eta Oikiako elizetako Iñigo Eztiola erretoreak auzia zuen Errege-kontseiluan Zumaiako Pedro Agirre bikarioaren aurka. Joan Beltran IV.a Iraetak zuen eliza haietako patronatua, eta hark aurkeztuta izendatu zuen erretore Iruñeko apezpikuak.

Pedro Agirrek, ordea, Aita Santuarengandik gutuna lortu zuen eta Iñigo Eztiola erretoretzatik bota egin nahi zuen. Pedro Agirrek zioenez, Joan Beltrani erretore berria aurkezteko epea pasa egin zitzaion eta eskubideak galdu egin zituen.

Errege-aginduz, Iñigo Eztiola babestu egingo zuten Aizarnazabalgo erretoretzan, kargu hartan inork oztoporik jar ez ziezaion (ikus [XV. m. 228] agiria).

Ez zen, ordea, arazoa horrenbestez konpondu. *Errege Katolikoek* Gipuzkoako korrejidoreari beste gutun bat bidali behar izan zioten Burgostik 1496-XII-7an. Pedro Agirrek oztopoak eta trabak ipintzen zizkion, eta, nekaturik, Eztiolak Errege-kontseilura jo zuen berriz ere laguntza eske. Errege-erreginek korrejidoreari zehatz agindu zioten Iñigo Eztiola edonoren indarkeria eta oztopoetatik babes zezala (ikus [XV. m. 231] agiria).

**20.1.2. Fernando Gebara zestoarra Burgosen Errege-kontseiluan**

1496-XII-2an Burgostik *Errege Katolikoek* Gipuzkoako Alvaro Porras korrejidoreari agindua bidali zioten. Zestoako Fernando Gebarak jakinarazi zenez, Zumaiako Martin Arteaga zenak eta semeak eroskeria eta lukurreriazko kontratu asko eginak ziren; baita Altxolarasko Lope abadea ere. Haien erreinuetako legeakha utsiz ituztenez ro,ne urrizga ine ramanda-

ko diruak itzularazi eta lukurariak zigor zitzatela eskatu zien.

Errege-erreginek Alvaro Porras korrejidoreari agindua eman zioten Fernando Gebarari eta aurkariei entzunda arazoa bidera zezan, gai harekin Fernando Errege-kontseilura berriz joan ez zedin (ikus [XV. m. 229] agiria)].

Fernando Gebarak Zestoako Kontzejuaren prokuradore gisa Errege-kontseiluan beste eske bat ere egin zien *Errege Katikoiei*. Gipuzkoan eta Bizkaian armada antolatu zuten kostaldea zaintzeko, eta Zestolari (beste bospasei herri txikiri bezala) sei edo zazpi gizon bidal zitzala eskatu zien korrejidoreak. Fernando Gebarak zioenez, Gipuzkoan biztanle gehiagoko herri handiagoak asko zeuden zerbitzu hura eskatzeko, eta Zestoak ez zituen bere soldaduak bidali behar.

Hurrengo egunean, 1496-XII-3an, hiri beretik errege-erreginek Alvaro Porras korrejidoreari agindua bidali zioten; izan ere, Gipuzkoako korrejidoreak haiengandik ez zuen horretarako agindurik jaso. Beraz, Zestoako soldaduak zerbitzutik libre utzi eta, hogeit eguneko epean, agindu hura emateko izan zituen arrazoiak azaldu egin beharko zizkien korrejidoreak (ikus [XV. m. 230] agiria).

Gerra-giroan zeuden urte hartan, Frantziarekin borrokan hasi beharko zuten beldur zirelako. Orduan, 1496an, ezarri zuten *Errege Katolikoek* derrigorrezko soldadutza. Hogeit urtetik berrogeita bost urte-bitarteko lanerako gai ziren hamabi gizonetatik batek armadan soldatapean zerbitzatu beharko zuen<sup>1</sup>. Gipuzkoan, dena den, derrigorrezko soldadutzarik ez zen ezarri. Probintzia babestu behar zenean Batzarrek bilarazten zuten bertan armada.

Giro hartan mugako kapitain jeneral Diego Lopez Aiarakoa zen, eta *Errege Katolikoek* agindua bidali zioten Tortosatik, 1496-II-15ean, Hondarribia eta Iru-



20.1. irudia. Burgosko katedral ondoko Andre Mariaren portalea.

nen arteko mugak bereiz zitzen. Lau egun geroago, leku beretik agindua emanda, Hondarribiko gazteluko alkaide izendatu zuten Aiarakoa. 1496-IV-27an, berriz, Soriako Almazandik aginduak bidali zizkieten Ingalaterrarekin harremanak izan zitzen<sup>2</sup>.

Gipuzkoako jaunek Italian errege-erreginen boterea zabaltzen ere jardun zuten. Italian zen 1496an, adibidez, Joan Perez Loiolakoa<sup>3</sup>, San Inazioaren anaia zaharrena. Napolin bere itsasontziarekin zebilen beste bat Joan Lopez Zarauzkoa zen, Lope Martinez Zarauzkoaren semea<sup>2</sup>. Lope aitak auzi luzea izan zuen Zestoako Kontzejuarekin 1485. urte inguruan Bedamako burdinola zela eta. Lope Martinezek Saiazko Alkatetza eta zinegotzi-kargua kontrolatzen zituen, baina 1496. urtean Alkatetza Joan Lopez semearen emaztearengana pasatu zen<sup>2</sup>.

### 20.1.3. Tolosa eta Arrasateko Batzar Nagusiak, Lasao, etab.

1496ko apirilaren 20an Tolosan bildu ziren Gipuzkoako Batzar Nagusiak, Batzar-hiribilduen ordenari jarraituz Tolosari zegokiolako. Bertan Leintz-Gatzagako hiribildua Gipuzkoako Ermandadera behin betiko sartu zen<sup>4</sup>. Gatzagakoek Gipuzkoako Ermandadarekin itun-agiria 1496-IV-26an sinatu zuten Tolosan. Bertan zenbait baldintza ezarri ziren. Gastuak ordaintzeko zenbat sukalde zegozkion zehaztu zuten, adibidez. Beste baldintza bat Gatzagak bere ermandadealkatea edukitzea zen<sup>5</sup>.

Hurrengo Batzar Nagusiak Arrasaten bildu ziren, 1496ko azaroan bildu ere<sup>6</sup>. Batzar haietako buru Alvaro Porras korrejidorea zen. Porras lizentziatua

aldi berean Gipuzkoako alkate nagusi eta merio nagusi ere bazen<sup>7</sup>.

Urte hartan, bestalde, Lasako burdinolaren jabe Joan Gartzia Lasakoa zen, Martin Gartzia Lasakokoren semea. 1496-XII-31n Azpeitian Martin Ibarluzek eta Pedro Ugartek konpromisoa hartu zuten Lasako burdinolan hurrengo ekaineko San Joan egunerako 500 karga ikatz uzteko. Ordainetan Joan Gartziak Beduan 70 kintal burdina emango zizkien<sup>8</sup>.



20.2. irudia. Lasako San Martin kapera.

Lasaoko etxeok 1496an Azpeitiko Kontzejuan ahalmena zuten. Irailean eta urrian Azpeitiko lurrik mugarriztatzeko egindako agirietan agertzen denez, Martin Martinez Lasakoa alkate zen (Joan Perez Eizagirrekoarekin batera), eta Martin Lopez Lasakoa zinegotzi<sup>9</sup>.

1496an, bestalde, Fernando eta Isabel errege-erreginei *Errege Katolikoak* titulua eman zien Alexandro VI.a aita santuak. Gainera urte hartantxe, alaba Joana (Joana *Eroa*) Austriako artxiduke Felipe *Ederrarekin* ezkondu zen. Horretarako Laredoko portuan ontzidua bildu zen, handik Joana infanta Flandesera eramatearren. Gipuzkoa, Bizkaia eta Santander inguruko itsasontziak elkartu ziren. Haietako bat Pedro Arrona ontzi-maisuarena zen, 270 upeleko edukiera zuena eta ehun gizon zeramatzana. Guztira 20 itsasontzi eta 3.500 gizon joan ziren bidaia hartan. Abuztuaren 22an itsasoratu ziren Laredoitik. Hamazazpi egun geroago, irailaren 17an, espedizioa Anberesera (edo Antwerpenera) iritsi zen<sup>10</sup>. Aipatu dugun Pedro Arroña gure ustez jatorriz Arroakolakoa zen, eta Ondarroan bizi zen, hango 1490 eta 1495. urteetako erroldetan azaltzen delako.

Iruñeko elizbarrutian, berriz, Erroman bizi zen Pallavicini kardinalak Joan Monterde izendatu zuen bikario nagusi. Laugarrena zuen Iruñeko apezpiku zenez gero, eta zortzi urte iraun zuen bikario berriak karguan<sup>11</sup>.

Garai hartan, 1496-1499 bitartean, Koloniako Arnold von Harff zaldunak Santiagorako bidean Nafarroa zeharkatu zuen, hasi Donapaleutik eta Biaraino. Bidaian bidez bide zihoala jasotako hainbat euskal hitzekin hiztegitxo argitaratu zuen gero<sup>12</sup>.

Beste bide bat babestearren, 1496-IX-23an *Errege Katolikoek* agindua bidali zioten Gipuzkoako korrejidore Alvaro Porrasi. Gipuzkoako Zarautz, Getaria, Zumaia, Zestoa, Azpeitia, Azkoitia, Urretxu eta Aeriako Alkatetzako agintariek jakinarazi zieten, aspalditik zegoen Legazpi ibarretik Arabako herrietara Biozkorna eta Urbiatik igarotzen zen errepidea.

Arabatik garia eta beste hainbat janari ekartzen zuten Gipuzkoara, baina azkenaldian Oñatiko eta Segurako Kontzejuetako jendeak ez zieten errepide hartatik ibiltzen uzten. Gainera, garia itsasoz ekartzerik ez zen egongo, eta bertako jendea gosez hilko omen zen.

Errege-erreginek errepidea zabaldu eta Legazpi ibarreko aipatutako jendea babes zezala agindu zioten Alvaro Porras korrejidoreari<sup>13</sup>. Kontuan hartzekoa da

1383-IX-15ean Zestoa hiribildu gisa sortu zenean harresiak Arrasatetik Getariaraino zihoan bidearen ondoan egin izana, 6.4.1. atalean adierazi genuenez. Orduan Arabako bidea Gipuzkoara Arlabandik zihoan, eta helmuga Getaria zuen. Orain, ordea, beste sARBIDE bat zegoen Gipuzkoara Aizkorri inguruko Biozkorna eta Urbiatik, baina azken muga gisa Zumaia, Getaria eta Zarautz aipatzen dira, eta ez Getaria bakarrik.

## 20.2. 1497. URTEA

### 20.2.1. Anton Arronaren eta anaien Getariako ondasunak

1497-V-7an Burgosen Getariako auzotar Anton Arro-nak *Errege Katolikoei* jakinarazi zenez, Getariako Kontzejuak zorrak egin zituen, eta hartzekodunak herritarren ondasunak bahitzen eta exekutatzeko ari ziren. Anton, Gartzia eta Pedro Arrona anaien itsasontzi, salgai eta ondasunak bahitzen baldin bazituzten, kalte handia egingo zieten. Horregatik eskatzen zieten errege-erreginei agindua eman zezatela haien ondasunak bahi ez zituzten. Hiru anaiek eskatutako mesedea lortu egin zuten (ikus [XV. m. 234] agiria).

Gure ustez Getariako Anton Arrona jatorriz Arroakolakoa zen, eta anaia Pedro Arrona (Ondarroako auzotar izanik) 1496an Laredotik Joana *Eroa* infanta itsasoz Flandesera ezkontzera eramaten ibilia.

### 20.2.2. Maria Ibañez Altzolaraskoa amama eta tutore

Zumaiako Arteaga etxean, 1497-V-5ean, Zestoako Joan Lopez Amilibikoa eskribauaren eta Zumaiako Pedro Fernandez Indanetakoa alkatearen aurrean, Maria Ibañez Altzolaraskoa (Bekolakoa) eta Maria Ruiz Arrazubikoa zeuden. Maria Ibañez, hain zuzen, hil berria zen Joan Martinez Arteagakoaren ama zen. Maria Ruiz, berriz, Joan Martinez zenaren bigarren emaztea.

Joan Martinez zenaren lehen emaztea Katalina Ruiz Dorrekoa zena izan zen, eta biek Joan Arteaga semea izan zuten, 1497an artean 14 urte bete gabea. Joan Martinez Arteagakoa zena berriz ezkondu zen, Maria Ruiz Arrazubikoarekin, eta Joan Rruiz eta Joan Lopez Arteagakoa semeak izan zituzten, 1497an artean bi urte bete gabe zituztenak.

Joan Martinez Arteagakoa, errege-erreginen zerbitzuan zebilela, Burgosen hil zen, eta, ondorioz, Maria Ibañez ama eta Maria Ruiz bigarren emaztea hiru seme adingabeekin zeuden alkatearen aurrean, eta eskea egin zioten umeen tutore eta administratzaile izenda zitzan; izan ere, Joan Martinez zenak ondasun ugari utzi zituen Sortaldean eta Sartaldean, Sizilian, Gaztelan, Aragoian eta abarren, eta hiru seme txikien interesak zaindu egin behar zituzten.

Maria Ruizek, bi umeren amak, bere bi semeentzat Maria Ibañez Altzolaraskoa (hiru haurren amama), Martin Arteaga (Joan Martinez enarena naiare tahi ru umeen osaba) eta Altzolarasko Lope abadea (Bekolako Maria Ibañez amamaren anaia) ere tutoretzat nahi zituen. Denak ere alkatearen eta eskribauaren aurrean zeuden.

Maria Ibañezek ontzat hartu zuen hiru biloben tutore izatea, eta Martin Arteaga eta Lope abadeak ere bai. Alkateak lau tutoregaiei zin eginarazi zien karguan zintzo jokatu zutelako zutela. Gainera, Maria Ruiz



20.3. irudia. Debako Endañetazar (Indanetazar) baserria.

tutoretzako denboraldian ez zen berriz ezkonduko. Lau tutoreek, bestalde, fidatzaileak ipini zituzten berme gisa. Hauek ziren fidatzaileak: Zumaiako Fernando Untzeta, Joan Fernandez Dornutegikoa, Joan Ibañez Garratzakoa eta San Joan Migelez Ganboakoa, eta Zestoako Joan Lopez Altzolaraskoa (Bekolako) eta Martin Otxoa Artazubiagakoa. Hauek ere denak alkatearen aurrean zeuden, eta beren buruak eta ondasunak behartu egin zituzten tutoreen fidatzaile gisa.

Zumaiako Pedro Fernandez Indanetakoa alkateak ahalordea eman zien lau tutoreei edozein auzitan eta auzitik kanpo hiru adingabeen tutore, administratzaile eta ordezkari izan zitezten. Prokuradoreak izendatu eta ordezkatu ahal izango zituzten.

Agiria egin zutenean lekuko hauek izan ziren: Jofre Sasiola batxilerra, Martin Gartzia Arteagakoa, Joan Fernandez Izetakoa, Lope Artzubiaga (Lope

“Zabal”en semea) eta Joan Fernandez Narruondokoa gaztea, denak ere Zumaiako auzotarrak (ikus [XV. m. 233] agiria).

Agiri honetan Joan Lopez Amilibikoa eskribaua Zestoako hiribilduko “numerokoa” zela aipatzen da, hots, Zestoako hiribilduari atxikitakoa zela; izan ere, Gipuzkoan 1495. urteaz gero eskribau eta notario publiko bakoitzak hiribildu edo Alkatetza Nagusi bati atxikitakoa izan behar zuen.

### **20.2.3. Zestoako Fernando Gebara alkatearen auziak**

1497-I-23an, Fernando Gebara Zestoako alkate zen, eta Joan Lopez Amilibikoa eskribauarekin zegoela, Sebastian Artazubiaga, Kontzejuko fiela, azaldu zen kontratu batekin. Kontratua Joan Martinez Ibañetakoa eskribauaren aurrean lehenago Joan Martinez Zabalakoak eta emazte Maria Joango Barrundiak

Zestoako Kontzejuarekin 1489an egina zen, Amabiturrietako errotari buruzkoa (ikus [XV. m. 185] agiria). Fielak eskritura haren kopia nahi zuen, originala zerbaitengatik galduta ere, beste bat edukitzearren.

Fernando Gebara alkateak originala aztertu eta Joan Lopez eskribauari behar adina kopia atera zezala agindu zion. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Perez Idiakaizkoa, Joan Mateo Arretxe eta Martin Azpee (ikus [XV. m. 232] agiria).

Bestalde, Fernando Gebarak auzi luzea zuen bere emaztearen bi anaiekin, eta gorabehera batzuk izan zituen. 1497-V-17an Burgosen Joan Ortiz Zaratekoa alkatearen aurrean Lope Fernandez Zumaiakoa gaztea (izen bereko Lope Fernandez Zumaiakoa zenaren semea) aurkeztu zen. Alkateari jakinarazi zionez, 25 urte bete gabea zen, eta anaia Antonio 14 urte bete gabea. Beraz, Lope Fernandez gazteak kuradorea behar zuen, eta anaia Antoniok tutorea. Zumaiako Migel Agirre apaiza eduki nahi zuen Lopek kargu horietan. Burgosen bertan zen Migel Agirre apaiza, eta fidatzaile Joan Martinez Olaberrikoa azpeitiarra izendatu zuen. Azpeitiarra ere hantxe zen haiekin

batara Burgosen. Migel Agirrek eta Joan Martinezek zin egin zuten beren tutore-, kuradore- eta fidatzaile-karguetan zintzo jokatuko zutela<sup>14</sup>.

Aipatu beharra dago Lope Fernandez Zumaiakoa gaztea eta Antonio anaia Altxolarats jauregiko Fernando Gebararen koinatuak zirela, hau haien arreba Elena Lopezekin ezkondata zegoelako.

- 1497-VIII-2an Gipuzkoako merio nagusiari edo edozein merioorderi agindua eman zion Alvaro Porras korrejidoreak Azpeitian, Lope Fernandez Zumaiakoaren (Fernando Gebararen aitagarrearen) ondasunak bahitu eta exekuta zitzaizkan, urrezko 120 dukat osatu arte, Errigoitiko Joan Saez Beroikakoari zor zizkiolako.

- Egun batzuk geroago, abuztuaren 8an, Joan Santxez Zumaiakoa eskribauaren aurrean Migel Agirre apaiza aurkeztu zen Lope Fernandez Zumaiakoa zenaren prokuradore gisa, eta ahalordea Gipuzkoako korrejidorearen entzutegiko Martin Perez Iralakoa eskribauaren esku utzi zuen. Azkoitiko Paskual Saez Zuatzolakoa Lope Fernandez Zumaiakoa zenaren



20.4. irudia.  
Amabiturrietaren  
irteera eta  
Uolarekin duen  
elkargunea

seme adingabeen prokuradore izendatu zuen. Auzi hartan, beraz, Lope Fernandez semeen ordezkari izango zen. Auzia Oñatiko Joan Arindiz San Pelaio-koaren testamentu-betearazleek ipini zuten. Prokuradore-ahalorea ematean Joan Santxez Zumaiakoa eskribauaren aurrean Martin Narruondo ontzi-maisua eta Joan Martinez Etxezarretakoa zumaiarrak lekuko izan ziren.

- Abuztuaren 12an Paskual Saez Zuatzolakoa Azkoitian aurkeztu zen, Alvaro Porrás korrejidorearen aurrean, Lope Fernandez semeen prokuradore gisa, Zestoako Fernando Gebararen aurkako auzian. Aipatutako ahalordea, Zumaiako eskribauak idatzitakoa, erakutsi zuen.

- Abuztuaren 16an, Beltran Perez Ugartekoa eskribaua eta Joan Maza merioordea Zumaiako lurreko Sarrondo etxearen aurrean ziren. Sarrondo baserria, mahasti bat eta baserriaren gainerako ondasunak bahitu egin zituzten, Joan Santxez Beroikakoak eskatuta. Bahitutako lurren mugakide ziren Maria Ibañez Arteagakoaren lurrak, Indanetako (oraingo Endañetako) mendia, Pedro Lizardiren sagastia eta Iñigo Elo-

rriagaren gaztainadiak. Lekuko izan ziren Martin Ubillos azkoitiarra eta Joan Martin Erretzabal zumaiarra.

- Biharamunean, abuztuaren 17an, Paskual Saez Zuatzolakoa Alvaro Porrás korrejidorearen aurrean azaldu zen, Lope Fernandez zenaren semeen ondasunak bahitu egin zituztelako. Agindu hura deusezta zezala eskatu zion, haien aldeari deitu eta entzun gabe agindua eman zuelako. Beste zenbait arrazoi ere jakinarazi zion prokuradoreak. Lekuko Gonzalo Martinez Bizkargikoa eta Joan Perez Umansorokoa (oraingo Imuntxokoa) eskribauak izan ziren.

Ondoren, korrejidorearen aurrean Gonzalo Martinez Bizkargikoa, Zestoako Fernando Gebararen prokuradorea, aurkeztu zen. Hark zioenez, Lope Fernandez Zumaiakoaren ondasunak bahitzeko pregoiak egin ziren eta ondasun haiek exekutatu egin behar ziren, aurkeztutako obligazio-kontratuan lukurreriarik ez zegoelako eta legeak agintzen zuelako. Fidatzailea aurkeztu zuen. Lekuko azkoitiar hauek izan ziren: Joan Saez Zumehetakoa eta Joan Perez Umansorokoa.

20.5. irudia.  
Zestoako  
Sarrondogoikoa.



- Egun batzuk geroago, abuztuaren 24an, Azkoitian Lope Fernandez semeen prokuradore Paskual Saez Zuatzolakoa azaldu zen, eta Zumaian 1494-IX-9an Fernando Gebarak eta Lope Fernandez Zumaiakoak egindako kontratua (ikus [XV. m. 213] agiria) aurkeztu zuen. Paskualek zioenez, kontratu hartako zorra ordainduta zegoen. Gainera, zor hura ezin zen Lope Fernandez zenaren (Fernandoren aitagarrebaren) semeengana pasatu. Bestalde, fidatzailearen izenik ez zuen eman Fernando Gebarak. Korrejidoreari eskea egin zion Fernandori maltzurkeriaz ez zela ari zin eginaraz ziezaion. Lekuko Joan Saez Zumehetakoa eta Joan Perez Umansorokoa azkoitiarrak izan ziren.

- Hurrengo egunean, abuztuaren 25ean, Joan Maza merioordeak Arrondoko (Sarrondoko) etxea enkantean saltzeko pregoia egin zuen, Paskual Saez Zuatzolakoa eskribauaren eta Azkoitiko Joan Ipintza, Joan Altzibar eta abarren aurrean. Ez zen eroslerik azaldu.

- Abuztuaren 30ean Azkoitian Gonzalo Salamanca korrejidoreorearen aurrean Gonzalo Martinez Bizkargikoak idaztia aurkeztu zuen. Aurkarien ondasunak bahitu eta exekutatu egin behar zituen, kontratuko obligazioa Lope Fernandez oinordekoengana pasatu zelako eta Fernando Gebarak emandako fidatzailea egokia zelako. Ukatu egin zuen Lope Fernandezek edo semeek zorra ordaindu izana. Aipatzen zuten ordainketa-agiria itxurazkoa eta faltsua omen zen. Lope Fernandezek eskatuta egin omen zuen Fernando Gebarak ordainagiria, bestela semea ez zela ezkonduko argudiatu ziolako. Ordainagiri hura baldintzapekoa omen zen. 450 florin balio omen zuen karabela eman omen zion Lope Fernandezek, baina karabela hura ez omen zen aitagarrebarena, lehenago saldu egin zuelako. Diego Rodriguez Astorgakoak Lope Fernandezi zion zorra ere Fernandok kobratzeko izango omen zen, baina Astorgakoak kartzelatik irten zuenean ihes egin omen zuen, eta ez omen zeukan ondasunik.

Gero Lopez Fernandez aitagarrebari Antso Barrenolak zor zizkion 50 kintal burdina Fernandori

agindu omen zizkion, baina Antsok zortzi urte baino gehiago omen zeramatzan hartzekodunengandik ihes eginda. Ontziola batean (Arranoletakoan) ere urrezko 50 florineko balioko parte eman omen zion Lope Fernandezek, baina ontziola hondatuta omen zegoen. Beraz, Lope Fernandez semeen ondasunak exekutatu egin behar zituzten. Azkoitiko Joan Martinez Arantzikoa eta Joan Saez Zumehetakoa izan ziren lekuko.

- Irailaren 4an, Azkoitian, Paskual Santxez eskribauaren aurrean Joan Maza merioordeak bigarren pregoia egin zuen Lope Fernandez zenaren ondasunak saltzeko, baina eroslerik ez zen azaldu. Martin Perez Iralakoa eta Joan Ipintza azkoitiarra izan ziren lekuko.

- Irailaren 9an, Azkoitian, korrejidorearen aurrera Paskual Saez Zuatzolakoa azaldu zen, eta idaztia utzi zion. Lope Fernandez Zumaiako zenaren semeen prokuradore gisa Gonzalo Martinez Bizkargikoak azkena esandakoei aurka egin nahi zien. Aurkeztu zuen ordainagiria ez zen faltsua; ez eta itxurazkoa eta baldintzatua ere. Fernando Gebarak bere etxea gordetzearren Lope Fernandez aitagarrebarena hondatu zuen. Urrezko 750 florin balio zuen karabela 450 florinean hartu zion, eta Martin Gartzia Altzolaraskoa ordezkotzi-maisu ipini zuen. Fernandok geroztik Martin Gartziarekin, lehenagoko korrejidoreekin hasita, auzia omen zeukan karabelako irabaziei buruz.

Fernando Gebarak, bestalde, Lope Fernandez zenaren Erraztiko burdinola (gure ustez Azpeitikoa) 600 kintal burdinatan saldu omen zuen, nahiz eta 1.000 kintal burdina baino gehiago balio. Lope Fernandezek Zestoan zituen etxeak eta beste ondasun batzuk ere saldu omen zituen Fernandok. Ondasunak bahitzeko ordainagiriak 800 kintal ipintzen bazuen ere, Fernando Gebarak gehiago (2.000 kintal) jasoak zituen. Joan Saez Beroikakoaren 120 dukatak eta gainerako zor guztiak Lope Fernandezek ordainduta zeuzkan.

Diego Rodriguez Astorgakoaren zorragatik Fernando Gebarak Lope Fernandez Zumaiakoarekin korrejidorearen aurrean auzia zintzilik omen zeukan.



20.6. irudia. Azkoitiko Kontzejupea.

Joan Gartzia Txurrukakoa eta Joan Santxez Zumehe-takoa azkoitiarrak izan ziren Paskualen azalpenaren lekuko.

- Irailaren 14an, Azkoitian, Joan Maza merioorde-ak Lope Fernandez ondasunak saltzeko hirugarren pregoia egin zuen, baina ez zen eroslerik azaldu. Lekuko azkoitiar hauek izan ziren: Pedro Saez Ubilloskoa, Pedro suhia eta Joan Azoka.

- Irailaren 15ean, Azkoitian, Alvaro Porrás korrejidoaren aurrean Gonzalo Martínez Bizkargikoa, Fernando Gebararen prokuradorea, azaldu zen. Hark zioenez, Paskual Saez prokuradoreak azkena esandakoak ez ziren egia. Fernandok ez zuen inoiz karabelarik bereganatu, eta ordezeko ontzi-maisua ipini baldin bazuen, Lope Fernandez izenean eta haren prokuradore gisa izan zen. Erraztiko burdinola beste prokuradore batzuek, prezio onean, saldu zuten,

eta ez Fernandok. Fernando Gebarak ez zituen Lope Fernandez Zestoako etxeak saldu, eta, saldu izan baldin balitu, Lope Fernandez hartzekodunei ordaintzeko izango zitekeen. Fernandok bere hainbat ondasun erabili omen zuen Lope Fernandez aitaginarebaren etxea hobetzen. Beraz, 120 dukatak kobratzeko zegoen.

Joan Perez Umansorokoa eta Joan Saez Zumehe-takoa azkoitiarrak izan ziren Bizkargikoaren azalpenaren lekuko.

- Irailaren 18an, Azkoitian, Paskual Saez eskribauaren aurrean, Gonzalo Salamanca merio nagusiak Lope Fernandez semeen ondasunen lehen enkantea egin zuen, baina ez zen eroslerik bertaratu. Joan Martinez Urraantegikoa (oraingo Urrategikoa), Joan Gartzia Txurrukakoa eta Joan Perez Umansorokoa azkoitiarrak izan ziren lekuko.

- Irailaren 21ean, leku berean eta agintari beraren aurrean, bigarren enkantea egin zen. Ez zen eroslerik azaldu. Lekuko Azkoitiko Asentzio Lariz, Pedro Ubillos eta Joan Azoka izan ziren.



20.7. irudia. Azkoitiko armarria.

- Irailaren 24an, leku berean eta merio nagusiaren aurrean, hirugarren enkantea egin zen, baina ez zen eroslerik agertu. Paskual Saez Zuatzolakoa eskribauaren aurrean Azkoitiko Joan Ipintza eta Joan Altzibar izan ziren lekuko. (ikus [XV. m. 235] agiria).

#### 20.2.4. San Joan Areitzagaren karabela

*Errege Katolikoek* 1497-VIII-30ean, Medina del Campotik, Diego Lopez Aiarakoa kapitain jeneralari eta Gipuzkoako Alvaro Porras korrejidoreari agindua bidali zieten. Zumaiako auzotar San Joan Areitzaga, Lope Oikiaren ordezkari ere izanik, Errege-kontseiluan aurkeztu zen, eta eskea egin zien. Urte hartako martxoan, aipatutako bi zumaiarrek Frantziako erregearen mendeko Gilen Tonallin, Olevier Esterlin eta Bono Olivero bretoiei karabela harrapatu zieten.

Errege-erreginen aginduz San Joan Areitzagak karabela bat armatu zuen, baina frantziarrek hondatu egin zioten. Bertan kapitain zihoan Areitzaga anaia eta beste zenbait gizon eta morroi hil egin zituzten. Kalte haien ordainetan eta frantziar zein bretoiek su-etenaren ondoren egindako hainbat erasoren ordainetan, San Joan Areitzagak eta Lope Oikiak lehen aipatutako karabela harrapatu zuten. Ondoren, errege-erreginek San Joan Areitzagaren eta lagunuen aurkako zedula bidali zuten, eta zedula hura deusezta zezatela eskatu zien Areitzagak.

Errege-erreginek Diego Lopez Aiarakoari eta Alvaro Porrasi informa zitezela agindu zieten. Delako itsas lapurreta su-etenaren ondoren izan baldin bazen, karabela, osorik, bretoiei itzuli egingo zieten. Bestela, ongi harrapatutako karabela izan zela erabakiko zuten (ikus [XV. m. 236] agiria).

San Joan Areitzaga eta frantziarrek hildako anaia kapitaina garbi dago jatorriz Arroakoak zirena.

Frantziarekin su-etena sinatu zutela 1497-III-25ean jakinarazi zioten *Errege Katolikoek* Burgostik Diego Lopez Aiarakoa kapitain jeneralari, baina merkataritza-harremanak etenda jarraituko zuten. Egoera

hartan, irailaren 17an Bernardino Fernandez Velasco-koa kondestablea izendatu zuten Nafarroako mugako, Gipuzkoako eta Bizkaiko kapitain jeneral.

Bitartean Diego Lopez Hondarribiko hiria eta gaztelua sendotzen ibili zen, horretarako Hondarribiko mendi batzuk salduta (1497-IV-4an). 1497-VIII-8an *Errege Katolikoek* Burgostik baimena eman zieten Gipuzkoako lau ontzi-jaberi, frantziarrek kendu zizkieten itsasontziak armaz eta indarrez berreskuratu ahal izateko. Hondarribiko gazteluko alkaide eta kapitainari bidali zioten baimena. Urte hartako urrian, Valladolidtik, beste gutun batez Irungoekin zuten auzian Hondarribikoen testigantzak har zitzatela agindu zuten<sup>2</sup>.

#### 20.2.5. Aizarnan Kontzeju-etxea egin nahian

*Errege Katolikoek*, 1497-XI-5ean Valladolidtik, gutun betearazlea bidali zieten Gipuzkoako eta Zestoako agintariei eta haien erreinuetako gainerakoei. Zestoako Kontzejuak eta Aizarnako biztanleek auzia eduki zuten elkarren aurka. Lehenbizi auzia Zestoako Joan Perez Idiakaizkoa alkatearen eskuetan egon zen, eta gero Gipuzkoako korrejidore Alvaro Porras lizentziatuaren eskuetan.

Zestoako Kontzejuaren eta errebalen izenean, Joan MartinezI bañetakoae skribauak Joan Agirre“ Txangilu” eta Domingo Urbieta zurgin-maisuei galderak egin zizkien, Aizarnan elizaren ondoan eraikitzen hasi berri ziren etxeaz. Inork ez zion erantzun; ez eta han zegoen Lope Iraeta elizako erretoreak ere. Joan Martinezek jakinarazi zenez, Zestoako harresiez kanpo ezin zuten Kontzeju-etxerik eraiki. Ondoren, debekatu egin zien lan haietan jarrai zezaten. Hamalau bat beso luzeko etxea zen, eta bi horma eginak zituzten.

Orduan Pedro (edo Pero) Lopez Altzolaraskoa azaldu zen aizarnarren prokuradore gisa Joan Perez Idiakaizkoa alkatearen aurrean. Aizarnako elizaren ondoan etxea egiten hasiak ziren, eta fidatzaileak aurkeztu zituen, gero etxe hura epaileen erabakiz bota



20.8. irudia. Aizarna.

egin behar bazen ere. Fernando Gebara eta Joan Agirre “Txangilu” zestoarrak ziren fidatzaileak (alkatearen aurrean zeuden biak). Gero Altzolaraskoak alkateari etxe berrian lanean jarraitzeko oztoporik ez zezala ipini eskatu zion.

Ondoren Joan Martinez Ibañetakoak alkateari lanak geldirik mantentzea eskatu zion. Hiribilduaren Kontzeju-etxeak (udaletxeak) Zestoako harresiaren barruan egon behar zuten, eta ez beste inon. Aizarnan Kontzeju-etxea egiteko aurkariak hartu zutena herri-lurra zen, eta herriaren inolako baimenik gabe hasi ziren eraikitzen. Gainera, legez Kontzeju-etxeak hiribilduaren barruan egin behar ziren. Beraz, eraikitzaileak zigortu egin behar zituen. Bestalde, Joan Martinezek debekatu ondoren ere, Aizarnan etxea eraikitzen jarraitu zuten.

Gero Pedro Lopez Altzolaraskoak (Bekolakoak), aizarnarren prokuradoreak, bere arrazoiak azaldu

zituen. Han etxea egiteak ez zion Zestoari kalterik egiten, eta Aizarnak askoz ere biztanle gehiago zituen hiribilduak baino. Aizarna Zestoa baino lehenagokoa zen, eta, horregatik, alkateak (arruntak eta ermandadekoak), fiela, zinegotziak eta ofizialak txandaka izaten ziren, urte batean hiribildukoak eta hurrengoan Aizarnakoak. Gainera Udal-bilerak Aizarnan egin ohi ziren, eta eraikitzen hasitako Kontzeju-etxea Aizarnakoa zen. Beraz, eraikitzeko ez zuten baimen-beharrik.

Arrazoi haiei aurka egin zuten egun batzuk geroago Joan Martinez Ibañetakoak. Eraikitze-lanak debekua ezarritako punturaino eraistea edo etxe osoa eraistea eskatuz iona lkatuari; i zane re, Kontzeju-etxeak (udaletxeak) harresi barruan egon behar zuten legez, hiribilduak jurisdikzio zibil eta kriminala zuelako. Horrela egin zuten Azkoitian, Bergaran, Deban eta beste zenbait hiribildutan. Aizarnan, berriz, etxea eraitsi ordez, eraikitze-lanak aurrera zihoazen.

Pedro Lopezek zioenez, ordea, bilerak Aizarnan egiten ziren, edo bestela Enekosauztegin, horretarako izendaturiko lekua zelako. Aizarnako eliza, gainera, buru zen, eta bereizita zeuzkan bereak zituen hamarren eta hasikinak. Zestoako elizak hamarrenak baldin bazituen, Aizarnak nahita eman zizkiolako zen. Aizarnako erretoreak kentzen eta ipintzen zuen, nahi zuenean, Zestoako elizako apaiza. Gainera, herriko pertsona famatuenak Aizarnakoak ziren.

Joan Perez Idiakaizkoa alkateak (Liliko jaunak) bi aldeei entzunda epaia eman zuen. Aizarnako Kontzeju-etxeko eraikitze-lanak hiru hilabetez geldirik egongo ziren. Bestela 50.000 maraiko isuna ezarriko zuen. Bi aldeek beren frogak eta testigantzak aurkeztuko zituzten epe baten barruan.

Orduan Pedro Lopez Altzolaraskoaren eskariz, auzia Gonzalo Salamanca korrejidoreordeak hartu zuen bere gain. Pedro Lopezek prozesua Alvaro

Porras korrejidorearen esku utzi zuen, eta, ondoren, bi aldeek beren arrazoiak eta argudioak azaldu zituzten. Korrejidoreak baimena eman zuen Aizarnako Kontzeju-etxea amaitzeko. Korrejidoreak, bestalde, bidali zioten errege-zedula bateko agindua bete zuen.

Azkenean korrejidoreak Zestoako Kontzejuari epea ipini zion testigantzak aurkez zituzan; baita Joan Martinez Ibañetakoak aurkeztu ere. Ondoren, korrejidoreak behin betiko epaia eman zuen Aizarnaren alde, eta Zestoako Kontzejuari gai hartan “betiko isiltasuna” ezarri zion, hau da, gai harekin ezingo zuen berriz auzirik hasi. Auzi-gastuak alde bakoitzak bereak ordainduko zituen.

Gero Joan Martinez Ibañetakoak gora jo zuen, epai haren aurka, Errege-kontseilura. Han Pedro Arriola prokuradoreak Gipuzkoako korrejidorearen epaia deuseztatzeko arrazoiak azaldu zituen. Zestoako hiribilduak, Azkoitikoak eta beste zenbait hiribil-



20.9. irudia. Aizarnako erretore-etxea.

duk bezalako pribilegioak zituen, eta haietan bilerak harresien barruan egiten ziren. Hiribildua eta bere lurrak gobernatzeko ekintzak beti harresi barruan gauzatzen ziren.

Ondoren Pedro Lopez Altzolaraskoak Alvaro Porras korrejidoreak emandako epaiaren alde egin zuen. Aizarnan biltzen omen ziren ermandade-alkatea, merioa eta zinegotziak hautatzeko eta beste zenbait gauzatarako. Errege-kontseiluko epaileek 40 eguneko epea eman zioten alde bakoitzari bere frogak eta testigantzak eraman zitzaizkien. Halaxe egin zuten, eta behin betiko epaia eman zieten. Alvaro Porras lizenziatuak epaia zuzen eman zuen, eta Aizarnako etxea amai zezaketen. Hala ere, ez zen Kontzeju-etxea (udaletxea) izango, eta Zestoako eta Aizarnako auzotarrak ez ziren han bilduko, ermandade-alkatea eta probestua aukeratzeko izan ezik. Auzi-gastuak alde bakoitzak bereak ordainduko zituen. (ikus [XV. m. 237] agiria).

Aizarnan egin nahi izan zuten Kontzeju-etxearen auziaren berri ematen duen agiri honetan, 1497-XI-5ekoan, Joan Perez Idiakaizkoa (Domenja Liliren senarra) azaltzen da herriko alkate. Lehentxeago 20.2.3. atalean, ordea, 1497-I-23ko agirian Fernando Gebara

agertzen da Zestoako alkate, eta Zestoan aldiko alkate bakarra aukeratzeko San Migel egunez: urte batean hiribildu eta errebaletakoa, eta hurrengoan Aizarnakoa. Gure ustez Aizarnako Kontzeju-etxearen auzia 1496an hasi zen, eta orduan izango zen alkate (iraileko San Migel eguna arte) Joan Perez, Liliko jauna. 1496-IX-29tik aurrera Fernando Gebara (Aizarnako parrokiakoa) izango zen Zestoako alkate urtebetez.

### 20.2.6. Gipuzkoako Batzarrak, jauntxoak, etab.

1497. urtean Gipuzkoako Batzar Nagusiak apirilean bildu ziren, Donostian, Gonzalo Salamanca korrejidoreordea buru zela. Leintz bailarako prokuradorea, Joan Lopez Galartzakoa, bertan zen. Leintz bailara Gipuzkoako Ermandadean sartzeko eskea egin zuen. Batzarrak erantzuna eman zion, alegia hurrengo Batzar Bereziatan onartuko zutela<sup>2</sup>.

Hurrengo Batzar Bereziak 1497-IV-29an Bidaniko Usarragan egin zituzten. Han Leintz bailara Gipuzkoako kide izatea onartu zuten. Baldintza batzuk ipini zituzten horretarako, eta Leintz bailarari 45 sukalderi zegokion zatia ezarri zioten gastuetan parte har zezan<sup>5</sup>.

20.10. irudia.  
Arrasateko  
udaletxeko armarrria.



Geroxeago, maiatzaren 17an bildu ziren berriz Gipuzkoako Batzar Bereziak, korrejidorea buru zela. Arrasateko prokuradore Martin Lopez Orokoak eskea egin zuen, Gipuzkoara sartu nahi ez zuten Leinzko biztanle batzuk behartuta sar zitezene<sup>2</sup>. Batzar hartan lekukoetako bat Martin Lasao izan zen, Azpeitiko auzotarra. Abuztuan, 25-27an, Aretxabaletan Esteibarko etxean Leintz bailarako Kontzejua bildu zen eta Gipuzkoari leialtasuna gordeko ziotela onartu zuten. Biztanleetako bat Martin Iraeta zen<sup>15</sup>. Irailaren 5ean ere egin zituzten, Bidanian, Batzar Bereziak berriz ere<sup>2</sup>.

Egun haietan Aretxabaletako plazan, 1497-IX-14an, Gatzaga hiribilduak eta Leintz bailarak (barruti bat osatuta) beren lehen ermandade-alkatea aukeratu zuten: Pedro Sardaneta. Bi urtez segidan ermandade-alkatea Leintz bailarakoa izango zen, eta hirugarren urtean Leintz Gatzagakoa<sup>16</sup>.

1497. urtean Alvaro Porras lizentziatua Gipuzkoako korrejidore, merio nagusi eta alkate nagusi izan zen<sup>7</sup>. Alvaro Porras lizentziatuak bere konponduezina ere izan zituen Gipuzkoako alkateekin. 1497. urtean, adibidez, korrejidoreak errege-erreginen gutuna erakutsi zuen, non kargurako izendatzen baitzuten eta Probintziari obedi ziezaiotela agintzen baitzion. Probintziak bereizi egin zituen gutunak zioen obeditzea eta aginduak “betetzea”; izan ere, betetzea ala ez betetzea botoa emanda erabakitzen zuten. Orduan Azpeitia, Donostia, Bergara, Arrasate, Tolosa, Zestoa, Hernani eta Aiztondoko Alkatetzako prokuradoreek botoa eman zuten honako hau adieraziz: alegia Alvaro Porras lizentziatuak hiru urte igaro zituela Probintzian, eta legeen arabera bi urte igarotakoan agintaldi-epaiketa egin behar zitzaiola. Beraz, hiru urte igaro zituenez gero, agintaldi-epaiketa egin behar zitzaion korrejidoreari<sup>17</sup>. Bestalde, 1497-I-5ean korrejidoreak errege-erregingandik agindua jaso zuen urtero Gipuzkoako hiribildu guztiak bisita zitzaizkion<sup>18</sup>. Urte hartan, gainera, errege-erreginek gutuna bidali zioten korrejidoreari ermandade-alkateren bat auzia Koadernoaren arabera epaitzen ari baldin bazen hari eskumenik eta auzirik ken ez ziezaiola<sup>2</sup>.

Batzar Nagusi eta Bereziatarako hiribilduek prokuradoreak izendatzen zituztenean, askotan auzoetako biztanleek ez zuten parte hartzen hautatzaile gisa. Bergaran, ordea, Oxirondoko elizatekoei eta Uzarragakoei aitortu egin behar izan zieten prokuradoreak aukeratzeko besteek adinako eskubidea zutela<sup>19</sup>.

Gipuzkoako Batzarretarako prokuradoreek pertsona egokiak izan behar zuten, eta ez behe-mailakoak. Goi-mailakoa zen 1497-VII-3an hil zen Joan Ortiz Zarauzkoa, Zarauzko eta Aiagoitiko sortetxeetako jauna. Zarauzko elizako patronatua zeukan, eta bertan hobiratu zuten. 67 urte eta lau hilabete zituen hil zenean. Pedro Ortiz Ganboakoa semea utzi zuen oinordeko unibertsal. Joan Ortizen emaztea Maria Lopez Ganboakoa zen, Elgoibarko Olasoko jaun Fernando Ganboaren eta Maria Ortiz Iraetakoaren alaba<sup>20</sup>. Maria Ortiz Iraetakoaren gure ustez Fortun Santez Iraetakoaren Ahaide Nagusiaren alaba zen.

Gipuzkoako jauntxoetako beste bat Bernardino Lazkano zen, Lazkaoko etxeko jauna, Fernando *Katolikoaren* gortean zebilena. 1497an auzia zuen Logroñoko Diego Zamorarekin. Ines Montoia andreakin ere auzia zuen, Bernardinoren aita Joan Lopez Lazkanokoak dotea agindu eta jaso ez zuelako.

1497. urtean, dirudienez, Joan Perez Loiolakoa (San Inazioaren anaia zaharrena) Napolin hil zen; izan ere, 1497-VIII-4an Medina del Campotik Erregekontseiluak Gipuzkoako korrejidoreari agindua eman zion Joan Martinez Altzagakoa eta Pedro Arrieta azpeitiarren auzian justiziaren arabera joka zezan. Aipatutako azpeitiarrak, hain zuzen, Joan Perez Loiolakoaren testamentu-betearazleak ziren<sup>2</sup>.

1497. urtean arazoak izan zituen Infantadoko dukeak Araban. Dukearen izenean Errege-kontseiluan eskea egin zuen Pedro Bruxelles prokuradoreak; izan ere, Arabako Ermandadeetako eskribauek eroskeriak eta agiri-faltsutzeak maiz egiten omen zituzten. Lurraldean mila biztanle eta hogeita bost eskribau omen zeuden. Infantadoko dukeak lurraldeko entzutegiko eskribau Zestoako Joan Ibañez Amilibi-

20.11. irudia.  
Iraetako  
Kaminerokoa.



koa izendatu zuen, pertsona zintzoa, zuzena eta ospe onekoa. Amilibikoa aztertuko zituen hango eskribauak, gai zirenak eta errege-titulua zutenak.

Bertako eskribauek dukearen erabakiari aurka egin zioten. Eskribau eta laguntzaileek, armaturik, Joan Ibañezi eraso eta hitz iraingarriak esan zizkieten. Zalaparta handia atera zuten. Forondan matxinatuta ibili ziren. Gartzia Mendoza alkateari kartzelatik preso bat askatu egin zioten. Haiek zigor zitzatela eskatu zuen dukearen prokuradoreak. Ondoren, errege-erreginek Errioxako Ozkabarteko (Santo Domingoko) korrejidoreari, Portillo batxilerrari, agindua eman zioten informazioa jaso eta gortera bidal zezan. Errudunak preso hartuko zituen batxilerrak, eta gero Errege-kontseiluan emango zioten jarraipena auziari<sup>21</sup>. Hemen aipatutako Joan Ibañez Amilibikoa zestorarrak, hain zuzen 1488-IX-23an lortu zuen eskribautitulua (ikus [XV. m. 169] agiria), eta Joan Lopez Amilibikoa eskribauaren senide zen, seguru asko semea.

Errege-erreginek zergak kobratzen zituzten burdinolatan, eta Zestoako zenbait burdinolatakoak jaun-

txoei ematen zizkieten mesede gisa. Zestoako Edarritzaga goiko eta beheko burdinolatakoak Martin Diaz Mirubikoa jasotzen zituen, eta Bedamako burdinolatakoak (2.000 marai) Joan Abendañok.

Azpeitiko Urrestillan, oraingo Artsuaga baserrian, 1497. urtean lanean ziharduen beste burdinola batek ere, Arrizuriagakoak, hain zuzen<sup>8</sup>.

1497. urtean San Miliango Manuel Ruiz jauna hil zenean *Errege Katolikoek* Pedro Idiakaitz azkoitiarrari, errege-erreginen logela-zainari, Zizurkilgo San Miliango eta Adunako Andre Mariaren elizetako patronatua eman zioten, baina hildakoaren emazte eta semeak dohaintza haren aurka egin eta auzia irabazi egin zuten<sup>22</sup>.

1497ko udaberriaren hasieran, Flandesko itsas armada (aurreko urtean Laredotik Joana *Eroa* eraman zuena) erromatarren enperadore Maximiliano-ren itsas armadarekin batera Santanderra iritsi zen, bederatzi eguneko bidaia egin ondoren. Maximiliano-ren Margarita alaba ekarri zuten Gaztelako Joan printzearekin ezkontzera. Bertan Gipuzkoako mari-

20.12. irudia.  
Lasaoko  
Edarritzagabarrena.



nelak ere baziren. Hileko 500 marai irabazten zuten, itsasmutilek 400 eta soldaduek ere 400 marai. Errege-erreginek espedizio hartan hil zen jendeagatik ordaindu beharrekoa ordain zezatela agindu zuten<sup>10</sup>.

Margarita Austriakoa Gaztelako Joan printzearekin ezkondu eta laster alargundu zen, printzea Salamanca urte hartantxe hil baitzen. *Errege Katoliko*en beste alaba bat, Katalina, Ingalaterrako Arturo erregearekin ezkondu zen 1497. urtean<sup>23</sup>.

## 20.3. 1498. URTEA

### 20.3.1. Fernando Gebararen auzi luzea

Zestoako Altzolarats jauregiko Fernando Gebarak Gipuzkoako lehengo Alvaro Porras korrejidorearen aurrean Lope Fernandez Zumaiakoaren seme adingabeekin zuen auziari (ikus [XV. m. 235] agiria) 1498an Francisco Vargas korrejidoreak eman zion jarraipena.

- 1498-II-10ean, Azpeitian, Bernal Medina merioaren eta Errodrigo Ruiz Leitzarangoa eskribauaren aurrean Martin Martinez Lasaokoa, Azpeitiko auzotarra, azaldu zen Fernando Gebararen ize-nean. Lope Fernandez Zumaiakoaren semeei

bahitutako ondasunak enkantean eroatera inor aurkeztu ez zenez gero, Fernandok Bandako ikurreko 50 dobla eskaini zituen ondasun guztiengatik. Goiazko Joan Gatzasagarreta eta Joan Amezqueta zumaiarra izan ziren lekuko.

- 1498-III-17an, Azpeitian, Francisco Vargas korrejidorearen eta Migel Perez Idiakaizkoa eskribauaren aurrean Fernando Gebara azaldu zen. Auzia lehengo Alvaro Porras korrejidoreak bideratu zuen, eta eskea egin zion Francisco Vargas lizentziatuari jarraipena eman ziezaion. Joan Martinez Egurtzakoa eta Joan Perez Izagirrekoa lekukoaren aurrean, korrejidore berriak baiezkota eman zuten.

Orduan Lope Gonzalez Ugartekoa azaldu zen, eta Fernando Gebarak lehen zeukan Joan Ruiz Irisagasti prokuradorearen ordezkari Lope Gonzalez izendatu zuen. Lope Gonzalezek zin egin zuen Gonzalo Martinez Bizkargikoaren ordezkari prokuradore zela Fernando Gebararen auzi guztietarako. Ondoren, Fernando Gebarak ahalordea eman zien Martin Martinez Lasakoak eta Joan Ruiz Irisagastikoa azpeitiarrei eta Gonzalo Martinez azkoitiarri, haren prokuradore izan zitezten.

Segidan korrejidoreak, Fernando Gebarak eskatuta, agindua bidali zien Lope Fernandez Zumaiakoaren Lope eta Antonio seme adingabeei, tutore eta prokuradoreak izendatuta, auzitara aurkez zitezten. Lau eguneko epea eman zien horretarako.

- 1498-III-19an, Zumaian, Lope Fernandez Zumaiakoa zenaren jauregian, Katalina Indaneta bertan zela, Joan Migelez Auzkuekoa (edo Azkuekoa) eskribauak korrejidorearen agindua irakurri zuen. Lekuko Joan Diaz Mirubikoa eskribaua (zumaiarra) eta Paskual Altzolarats zestoarra izan ziren.

- 1498-III-20an, Martin Martinez Lasakoak Fernandoren izenean korrejidorearen agindua erakutsi zuen, eta Lope Fernandez semeak auzi-iheslaritzat jo zitzala eskatu zion Vargas korrejidoreari.

- 1498-III-21ean, Alonso Ruiz Olmedokoa korrejidoreordearen eta Migel Perez eskribauaren aurrean Martin Martinez Lasakoak bigarrenagokoz eskatu zuen aurkariak auzi-iheslaritzat jotzea. Lekuko Bernal Medina merioa eta Martin Larrar izan ziren. Egun berean, ordea, Lope Fernandez Zumaiakoa zenaren Lope eta Antonio seme adingabeen tutoreak (Migel Agirre zumaiarrak) ahalordea eman zien Joan Martinez Egurtzakoa azpeitiarri eta Paskual Santxez Zuatzolakoari auzian prokuradore izan zitezten. Joan Saez Zumaiakoa ganbera-eskribauak idatzi zuen ahalorde-agiria, eta hauek izan ziren lekuko: Domingo Perez Kuridikoa (edo Guridikoa) jostuna, Joan Lopez Indanetakoa eta Joan Aizarnazabal upelgilea.



20.13. irudia. Azpeitiko Kontzeju-etxea, XVI. mendekoa.

- 1498-III-22an, Azpeitian, korrejidoreordearen eta Migel Perez eskribauaren aurrean, Martin Martinez Lasakoak hirugarrenez salatu zituen aurkariak auzi-iheslaritzat. Ontzat eman zuen aurkarien ondasunen exekuzioa urrezko 50 dukatetan egitea, eta auzia amaitutzat emanda epaia argitara zezala eskatu zion korrejidoreordeari. Alonso Ruiz korrejidoreordeak beste aldeari berri eman eta lau egun barru erantzun zezatela eskatu zien. Bernal Medina merioa eta Martin Larrar izan ziren lekuko.

- Biharamunean, 1498-III-23an, Joan Martinez Egurtzakoa Azpeitian korrejidorearen aurrean zen Lope Fernandez semeen prokuradore gisa. Ahalorde-agiria erakutsi zuen, Joan Martinez Aranburukoa eta Joan Perez Izagirrekoa eskribauak lekuko zirela.

- 1498-III-29an, Azpeitian, Joan Martinez Egurtzakoa prokuradoreak korrejidoreari bederatzi egune-

ko epea eskatu zion alegazioak egiteko. Prozesuko paperak Martin Perez Iralakoa eskribauaren esku egon omen ziren denbora luzez, eta abokatua ez omen zegoen jakinaren gainean. Korrejidoreak zortzi eguneko epea eman zion.

- 1498-IV-4an, Azpeitian, korrejidorearen aurrean Joan Martinez Egurtzakoa prokuradoreak eske-agiria aurkeztu zuen. Fernando Gebarak Lope Fernandez Zumaiakoaren semei emandako ordainagiria egiazkoa zen. Bertan aipatzen ziren karabela eta ondasunak benetan eman zitzaizkion Fernando Gebarari, eta ordainagirian ipinitako balioa zuten. Karabelan ordeko ontzi-maisua ipini zuen Fernandok, eta ontzi-maisua hil ondoren ere auzitan jarraitu zuen haren fidatzaileekin karabelaren irabazien inguruan.

Ondoren Vargas korrejidoreak auzia amaitutzat jo eta epaia hiru egun barru emango zuela agindu zuen. Joan Perez Izagirrekoa eta Joan Otxoa Izagirrekoa eskribauak izan ziren lekuko.

- 1498-IV-11n Vargas korrejidoreak Azpeitian bere epaia argitaratu zuen. Fernando Gebarak eta Errigoi-

tiko Fortun Beroiak eta Martin Beroiak lau eguneko epea zuten korrejidorearen aurrean maltzurkeriaz ez zirela ari zin egiteko eta galderei erantzuteko. Lekuko Legorretako batxilerra eta Joan Otxoa Zorrobiagakoa izan ziren.

- 1498-IV-14an, Azpeitian, Francisco Vargasen aurrean Martin Martinez Lasakoa agertu zen. Prokuradoreak zioenez, egun haietan jaiak zirenez gero, Fernando Gebarari zina egiteko epea luzatzea eskatu zuen. Hurrengo astelehenetik hasita zortzi egun eman zizkion korrejidoreak. Joan Perez Izagirrekoa eta Pedro Plazentzia izan ziren lekuko.

- 1498-IV-23an, Azpeitian, Martin Martinez Lasakoa korrejidorearen aurrean azaldu zen. Fernando Gebara Valladolidko bidean zen eta ezingo zuen eskatutako zina egin. Korrejidoreak informazioa eskatu zion prokuradoreari, eta gero zin egiteko epe egokia emango ziola agindu zion. Lekuko Joan Perez Izagirrekoa eta Joan Martinez Aranburukoa izan ziren.

- 1498-VII-9an, Azkoitian, korrejidorearen aurrera Fernando Gebara agertu zen, eta eskatutako zina



20.14. irudia.  
Azpeitiko udaletxea.

eginda legeak agindutako galderei erantzun zien. Bernal merioa eta Paskual Saez Zuatzolakoa izan ziren lekuko.

- 1498-VII-18an, Azkoitian, korrejidoreari Martin Martinez Lasakoak auzia amaitutzat jotzea eskatu zion. Paskual Saez Zuatzolakoa eta Joan Saez Zumehetakoa izan ziren lekuko.

- 1498-VIII-9an, Tolosan, korrejidoreari eske bera egin zion Martin Martinezek. Lekuko Luis Alzaga eta Joan Martinez Segurakoa izan ziren.

- 1498-IX-14an, Tolosan, Martin Martinez Lasakoak, Fernando Gebararen prokuradoreak, Errigoitiko Fortun Beroika jauna aurkeztu zion korrejidoreari. Lope Fernandez semeen prokuradorea, Joan Otxoa Zorrobiagakoa, aurrean zela, Fortunek zin egin zuen auzi hartan maltzurkeriaz ez zela ari. Korrejidoreak lau eguneko epea eman zion Zorrobiagakoari Fortunek erantzun beharreko galderak presta zitzaizkion.

- 1498-IX-20an, Tolosan, Joan Otxoa Zorrobiagakoa korrejidoreari galderak aurkeztu zizkion: 1) Ea Lope Fernandez Zumaiakoa zena ezagutu zuten eta bi seme adingabeak ezagutzen zituzten; 2) Ea exekuzio-aginduan aipatzen ziren ondasunak Lope Fernandez zenaren semeenak (Lope eta Antoniorenak) ziren; 3) Ea maileguz emandako dirua irabazteko bidaia edo bidaiak konpliturik zeuden; 4) Ea zekiten Fernandok obligazioan zehaztutako kopurua hartzekodunari ez ziola ordaindu edo ea 1494-IX-9a baino lehen ordaindu zuen, eta esan zezatela hartzekodunak zein txanpon mota edo gauza jaso zituen; 5) Korrejidoreari Fernando Gebarak eskribauaren aurrean Lope Fernandez Zumaiakoari sinatutako ordainagiria erakutsi zezala eskatu zion; 6) Fernandok Lope Fernandezi emandako 800 kintal burdina ea zein hartzekodunek jaso zuten, eta ea bakoitzari zenbat ordaindu zitzaion. Haien ordainagiriak erakutsi zitzaizkion Fernandok; 7) Ea zekiten Lope Fernandezek hauek eman zizkiola: 450 florineko karabela, ontziolako bostena (50 florineko balioa zuena), Joan Baia baxelariaren 18.000 marai, Diego Rodriguez Astorgakoaren 153 dukat eta Antso

Barrenolaren 30 kintal burdina. Zubiaurre etxeoko Lope Fernandezi ea Fernandok horregatik guztiagatik ordainagiria eman zion; 8) Ea zekiten Fernando Gebarari eman zionean, delako karabela Lope Fernandezena zen eta zegoen bezala 600 florin edo gehiago balio zuen; 9) Ea zekiten Fernando Gebarak karabela hartan ontzi-maisu Martin Gartzia Alzolaraskoa ipini zuen eta hau hil zenean Fernandok fida-tzaile azpeitiarrei itsasontziaren irabaziengatik auzia ipini zien; 10) Ea zekiten Martin Gartziarekin eta fida-tzaileekin auzian Fernando Gebara Lope Fernandezen izenean ari zen; 11) Ea zekiten Fernandok Lope Fernandezengandik jasotako ondasunak Zumaiakoaren etxetik betiko besterendu ziren; 12) Ea zekiten Fernando Gebarak Lope Fernandezen burdinola, Erraztikoa, 700 kintal burdinatan saldu zuela, baina 1.000 kintal balio zituela. Ea zekiten 700 kintal burdinak nora joan ziren; 13) Ea zekiten Fernando Gebarak Lope Fernandezen Zestoako etxeak saldu egin zituela eta ea zer gehiago saldu zuen; 14) Ea zekiten Fernandok salmenta haietatik 2.000 kintal burdina baino gehiago jaso zuela eta Fernandok bere etxea konpondu zuela; 15) Ea zekiten ordainagiria ez zela faltsua; 16) Ea hemen esandakoa Zumaian, Zestoan eta inguruetan ezaguna zen.

Ondoren Joan Otxoa Zorrobiagakoa korrejidoreari eskea egin zion: Fernando Gebarak, zin eginda, erantzun ziezaiela galdera haiei. Joan Martinez Aranburukoa azkoitiarra eta Joan Abalia tolosarra eskribauak izan ziren lekuko.

- 1498-IX-27an, Fortun Beroiak ahalordea eman zion Martin Martinez Lasakoari Fernando Gebararen auzian ordezkari izan zedin. Agiria Bizkaiko Errigoitian Joan Martinez Anizkoa eskribauak egin zuen. Lekuko Joan Anizgoitia eta Martin Katelinaga izan ziren.

- 1498-IX-28an, Donostian, Antso Diaz Zurbanoak korrejidoreordearen aurrean, Martin Martinez Lasakoa prokuradoreak, Fernando Gebararen izenean, Zorrobiagakoa aurkeztutako galderei erantzun egin zion: 1) Lehen galderari baiezkoa erantzun zion;



20.15. irudia. Tolosako Justizia plaza.

2) Baietz zioen; 3) Obligazio-agirian aipatutako dirua benetan eman zen, eta han ez zen tartean trukerik egon; 4) Ezezkoa zioen; 5) Fernandok ordainagiriko kopuru osoa hartzekodunei eman zien; 6) Fernandok Lope Fernandezen hartzekodunei obligazio-agirian zehaztutako guztia ordaindu zien, eta galderako gainerakoa ukatu egin zuen; 7) Galderan adierazitakorik ez zuen jaso, Muskizko Joan Aizak emandako 18.000 marai izan ezik; 8) Ezezkoan zegoen; 9) Fernando Gebarak Lope Fernandezen prokuradore gisa eman zion ontzia Martin Gartzia Altzolaraskoari 1484-IX-9a baino askoz ere lehenago; 10) Bai, lehen erantzundakoaren arabera; 11) Ezetz zioen; 12) Fernandok burdinola beste prokuradore batzuekin batera saldu zuen, Lope Fernandezen hartzekodunei ordaintzeko, eta ez berarentzat hartzeko; 13) Lope Fernandezek Zestoako etxeak lehenbizi Fernando Gebarari saldu zizkion, eta gero saldu zituen Fernandok; 14) Ezetz zioen. Fernandok 2.000 kintal burdina baino gehiago galdu zituen Lope Fernandezen zorrak zirela medio;

15) Ordainagiria faltsua zen, itxurazkoa.

Erantzun haien aurkezpenean Bernal Medina merioa eta Joan Martinez Aranburukoa eskribau azkoitiarra izan ziren lekuko.

- 1498-X-1ean, Donostian, korrejidoreordearen aurrean Martin Martinez Lasaokoak Joan Martinez Anizkoa Errigoitiko eskribauaren agiria aurkeztu zuen. Hark zioenez, Martin Beroika apaiza eta Fortun Beroika jauna Joan Saez Beroikakoaren testamentu-betearazleak ziren, eta ahalordea zuten Fernando Gebararen auzian parte hartzeko.

- 1498-X-6an, Donostian, korrejidoreordearen aurrean Martin Martinez Lasaokoak auzia amaitutzat jotzea eskatu zuen, eta korrejidoreordeak lau egun eman zizkion Joan Otxoa Zorrobiagakoari ezer bazuen aurkeztu eta auzia amai zedin (ikus [XV. m. 238] agiria).

Auzi honetan argi eta garbi ikusten da Gipuzkoako korrejidoreak urtean zehar bere korrejimenduko egoitza lau tokitan nola eduki zuten; hurrenez hurren Azpeitia, Azkoitia, Tolosa eta Donostian.

Bestalde, korrejimenduko idazkari Migel Perez Idiakaizkoa azkoitiarra azaltzen zaigu, gure ustez Zestoako Lilira ezkonduko Joan Perez Idiakaizkoaren anaia.

### 20.3.2. Ikazkinak Lasaoko burdinolarako lanean

1498-II-25ean Aizarnako plazan, Joan Lopez Amilibikoa eskribauaren aurrean, batetik Joan Gartzia Lasaokoa eta, bestetik, Joan Mendaro eta Martin Aia (“Matxin Egia” ezizenekoa) elkartu ziren. Azken biek beren buruak eta ondasunak behartu egin zituzten Joan Gartzinari Saroetxipi eta Orolditza mendietan (Azpeitiko partekoak ziren) 140 florineko balioa zuen egur-ikatza egitera (florin 1 = Gaztelako 50 sos zuri). Ikatz-karga bakoitzagatik Gaztelako 31 sos zuri

emango ziren Joan Gartziak, 140 florineko balioa osatu arte. Lanean berehala hasi eta amaitu arte jarraituko zuten. Kontratuan lekuko zestoar hauek izan ziren: Jofre Altzolarats (Bekolakoa), Joan Edarritzaga eta Mateo Potzueta (ikus [XV. m. 239] agiria).

Hilabete batzuk geroago, 1498-V-12an Toledotik *Errege Katolikoek* Domingo Amilibia eskribauari, lehentxeago aipatutako Joan Lopez Amilibikoaren semeari, mesede-gutuna bidali zioten. Handik aurrera, bizialdi osorako, aita Joan Lopez Amilibikoa eskribau zenaren postuan jardun ahal izango zuen. Herriko Kontzejuan zin eginda, eskribautzat hartuko zuten, eta eskribauek zituzten eskubideak onartu egingo zizkieten (ikus [XV. m. 242] agiria). Urte hartako otsaila eta maiatza bitartean hil zen, beraz, Joan Lopez eskribau zestoarra.

Dena dela, 1498-IX-28an egindako agiri batean Domingo Amilibia eskribau zestoarra aipatzen da. Gortetik bidalita Durangon ibili zen zenbait testigantza jasotzen<sup>24</sup>.

20.16. irudia.  
Aizarnako Potzueta baserria.



### 20.3.3. Iñigo Eztiola eta Lope Altzolarats apaizentzako errege-babesak

1498-II-26an Alcala de Henarestik *Errege Katolikoek* Iruñeko elizbarrutiko bikarioari eta Gipuzkoako korrejidoreari agindua bidali zieten. Aizarnazabalgo eta Oikiako elizetako patronatua Joan Beltran IV.a Iraetak zeukan errege-erreginek emanda, eta bertako erretore Iñigo Eztiola zen. Zumaiaiko Pedro Agirre bikarioak, ordea, Erroman bulda lortu zuen eta Iñigo Eztiolari oztupoak ipintzen jarraitzen zuen. (Auzi honi buruz ikus, halaber, [XV. m. 224], [XV. m. 228] eta [XV. m. 231] agiriak).

Errege-erreginek agindua bidali zuten aipatutako elizetako erretoretzari buruz Elizako prozesurik egin ez zedin eta Joan Beltran nahiz Iñigo Eztiolaren aurka joan ez zitezen (ikus [XV. m. 240] agiria).

Segurtasun faltan zebilen beste apaiz bat Zestoako Lope Altzolaraskoa zen; izan ere, Lope abadeak (Bekolakoak) eskea egin zien *Errege Katolikoek* agiri baten bidez. Hark zioenez, apaiz bizi zen Zestean, baina beldur zen Pedro Ortizek (Zarauzko etxeko jaunak) edo haren senide edo lagunek kalte egingo ote zioten. Agian zauritu edo hil egingo zuten, edo lagun morroi eta ondasunak kaltetuko zizkieten, gorroto ziotelako. Beraz, errege-babesa eta aseguruia eskatu zien.

Errege-erreginek, Toledotik, 1498-IV-29an Pedro Ortiz Zarauzkoarengandik eta haren lagunengandik babesteko errege-aseguruia eman zioten Altzolarasko (Bekolako) Lope abadeari (ikus [XV. m. 241] agiria).

Altzolarasko burdinolako zergak (albala eta hamarren zaharra edo alkabalak) 1466. urteaz gero Iñigo Belez Gebarakoak (Oñatiko kondeak) jasotzen zituen, eta 1498. urtean Valladolidtik azaroaren 9an kondearen Joan Lopez Lazarragakoa kontulariak jaso zitzala agindu zuen<sup>8</sup>.

Bekolako etxeari hurrengo mendearen hasieran eragingo zion ezkontza-kontratu bat egin zen Getaria-



20.17. irudia. Getariako kale nagusia.

ko errebalean 1498-V-24an, Zarauzko Joan Ibañez Amilibikoa eta Getariako Paskual Migelez Arretxe-koa eskribauen aurrean. Fernando Orexa zen senargaia, Migel Ibañez Oresakoa eta Santxa Fernandez Etxeberrikoa getariarren semea. Emaztegaia, berriz, Getariako Maria Perez Untzetakoa zen, Joan Ortiz Untzetakoa eskribaua eta Maria Joanes (edo Ibañez) Amilibikoa getariarren alaba.

Migel Ibañezek eta Santxak senar-emazte berriei Getariako kalean zuten etxea eman zieten bertako hornidura, upel (sagardoa eta ardo edukitzeak) eta abarrekin. Getariako partean hainbat mahasti, sagasti eta lursail ere eman zizkieten. Baldintza batzuk ere ipini zituzten. Besteak beste, emandako ondasun guztien gozamen edo usufruktua izango zuten Migelek eta Santxak.

Joan Ortiz eta Maria Joanes senar-emazteek alaba Maria Perez Untzetakoari eta honen senarrari 240

kintal burdina emango zizkieten epeka; baita zilarrezko ontziak, arreoak, etab. ere. Migel Ibañez eta Santxa emazteari 60 kintal burdina emango zizkieten. Fidatzaileak ere ipini zituzten.

Senar-emazte berriek seme-alabarik edukitzen ez bazuten, alde bakoitzak emandako ondasunak jatorrizko “enborrera” itzuliko ziren. Migel Ibañez eta Santxa emazteak Joan Perez Amilibikoa eta Anton Arrona aurkeztu zituzten fidatzaile gisa. Pedro Arteaga eta Joan Domingez Mirubikoa izan ziren Joan Ortiz eta Maria Joanesen fidatzaile. Ezkontza-kontratuan lekuko Joan Martinez Errekondokoa, Joan Migelez Zarauzkoa zaharra eta Joan Aldape maisua izan ziren<sup>25</sup>.

#### 20.3.4. Beduako jauna Joan Irure upelgilearen hartzekodun

1498ko abenduan, Zestoan Beduako jaun Martin Santxez Martzanakoari Zumaiako Joan Irure upelgileak zorretan erosi zion zelako mandoa. Urrezko hamabi dukat ordainduko zizkion zordunak Beduakoari hurrengo urteko otsaileko Andre Mariaren egunerako. Horretarako Joan Irurek bere burua eta ondasun guztiak lotu zituen, eta hainbat eskubideri uko egin zion.

Zestoako Joan Martinez Ibañetakoak eskribauak idatzizko obligazio-agiria, Fernando Gebara eta Martin Urrutia zestoarrak eta Joan Perez Etxazarretakoa zumaiarra lekuko izanik (ikus [XV. m. 243] agiria).

#### 20.3.5. Gipuzkoako Batzar Nagusiak eta Bereziak, Ordenantzak, etab.

1498. urtean lehenbizi Gipuzkoako Batzar Bereziak Azkoitiko Basarten bildu ziren, otsailaren 7an. Donostiari 15 urterako barkatu zitzaion Probintziari sukaldeka ordaindu behar ziona.

Urte bereko apirilean, 28an, Batzar Nagusiak Elgoibarren Francisco Vargas korrejidorearekin bilduta, Leintz Gatzagari bertako hamaika sukaldek Probintziari ordaindu beharrekoa barkatu zioten<sup>2</sup>.

Ekainaren 19an bildu ziren berriz Basarten Batzar Bereziak Francisco Vargas korrejidorea buru zela. Probintzian egindako delituak jazartzeko ordenantzak egin zituzten.

Azaroaren 20-24an Deban bildu ziren Gipuzkoako Batzar Nagusiak korrejidorea buru zela. Probintzian delitugileak atxilotzeko ordenantza berretsi egin

20.18. irudia.  
Elgoibarko  
udaletxea.



zuten<sup>26</sup>. Hondarribiari hamar urterako barkatu zitzaion Probintziari sukaldeka ordaindu behar zuena<sup>2</sup>. Guztira 58 sukalde zegozkion eta bi herenak barkatu zizkieten<sup>4</sup>.

Batzar haietan Gipuzkoako errepideen egoeraz kezkatu azaldu ziren agintariak. Epeak eman zituzten bideak konpontzeko, baina batzuek ez zuten agindurik bete. Batzar haietan bide-ikertzaileak izendatu zituzten, Gipuzkoako ibar bakoitzerako bat, hurrengo urteko San Migel egunerako errepideak eta alboko bideak konponaraz zituzten. Errepideak konpontzen ez zituztenek 50.000 maraiko isuna izango zuten.

Errepideak ikertzeko eta agindua betearazteko honako hauek izendatu zituzten: Martin Ruiz Olaso-koa, Otxoa Iñiguez Aurgastekoa eta Joan Martinez Ariztizabalgoa. Bakoitza bere ibarraz arduratuko zen. Martin Ruizen ibarrak herri eta leku hauek zituen: Hondarribia, Errenteria, Oiartzun, Donostia, Hernani, Tolosa, Asteasu, Ordizia eta Segura San Adrianeraino. Otxoa Iñiguez Aurgastekoaren (edo Ugartekoaren) ibarrean hauek zeuden: Orio, Zarautz, Getaria, Zumaia, Zestoa, Azpeitia, Azkoitia eta Bergara. Joan Martinezen ibarrekoak hauek ziren: Deba, Mutriku,

Elgoibar, Eibar, Soraluze, Arrasate, Leintz bailara eta Gatzaga. Otxoa Iñiguez eta Joan Martinezek (elkarrekin, eta ez bakarka) Aleriako bailara Iartzako zubiraino ikertuko zuten<sup>27</sup>.

1498. urtean Francisco Vargas lizentziatua aldi berean Gipuzkoako korrejidore, merio nagusi eta alkate nagusi izan zen<sup>7</sup>. 1498-X-5eko errege-aginduz korrejidoreak edo korrejidoreordeak Gipuzkoako Batzarretan egon behar zuen<sup>28</sup>.

1498-XI-3an errege-agindua bidali zuten Gipuzkoara, ondasunen exekuzioa egiten zutenean hartze-kodunek zorra kobratu baino lehen merioek saria jaso ez zezaten<sup>2</sup>.

Urte hartantxe, Azpeitian, Joan Antxieta Soreasuko elizako erretore izendatu zuten. *Errege Katoliko*en Gortean musikari famatua zen orduan. Urte berean, Isabel erreginarenean laguntzaile zen Maria Araotz bergarra Martin Gartzia Oñazkoarekin (edo Loiolakoarekin) ezkondu zen<sup>2</sup>. 1498-III-20an, hain zuzen, *Errege Katolikoek* urteko 100.000 marai agindu zituzten 600 eta 1.000 upel bitarteko itsasontziak erregerreginen aginduetara ipintzen zituztenei<sup>29</sup>.

20.19. irudia.  
Azpeitiko Oñazko  
abade-etxea.



Nafarroako erresuman 1492. urteaz gero *Errege Katoliko*en erreinuetatik ihes egindako hainbat judu bizi zen, baina 1498an Nafarroatik ere ihes egin behar izan zuten<sup>30</sup>. Iruñeko elizbarrutian, berriz, Antoniotto Gentil Pallavicini apezpikuak (eta kardinalak) 1498-IX-2an ahalordea bidali zion Juan Monterde bikario

nagusiari apezpikuaren edozein ofizial kargutik kentzeko ahalmena emanez<sup>11</sup>.

Bestalde, 1498-IV-8an Frantziako Karlos VIII.a erregea hil egin zen, eta Luis XII.ak hartu zuen bere gain Frantziako koroa<sup>31</sup>.

## 20.4. 1499. URTEA

### 20.4.1. Fernando Gebararen testamentu-zirriborroa

Altzolarats jauregiko Fernando Gebarak, 1499ko urtarrilean, inongo eskribauren testigantzarik gabe, bere testamentuaren zati baten zirriborroa idatzi zuen. Lehen lau orrialdeetan erlijio katolikoaren fedeko artikuluak aitortu zituen, eta bere burua katoliko sinestun azaldu zuen.

Aizarnatik 35 legoa baino urrutiago hiltzen ez bazen, Aizarnako elizan lur eman ziezaiotela agindu zuen, aldareko mailen barrenean eskuinean zeukaten ehorztokiko aurreko hobian. (Aipatu beharra dago Fernando gero hil eta Valladolidko San Martingo elizan hobiratu zutela). Hiletak, hirugarren egunekoa, urteurrena eta bederatzigarren egunekoa, kandela eta olatekin, Aizarnako elizan egingo ziren, Altzolarasko dorrekoei ordura arte egin zitzaizen moduan.

Ondoren beste agindu batzuk eman zituen, baina Fernandok bere bizialdian agindu haiek beteta (edo neurri batean beteta) uzten baldin bazituen, ondorengoek bete gabeko zatia baino ez zuten ordainduko edo konplituko.

Aizarnako elizan haren hilobiaren gainean tamaina oneko aldarea eta erretaula (Ama Birjina Arrosariokoarena) egingo zituzten. Han urtero requiem meza emango zuten haren eta haren senideen alde. Hogeita hamar egun segidan meza emango zuten, eta hori hiru aldiz (guztira 90 meza).

San Pedro Zumaiakoaren elizan Andre Mariaren aldarean hogeita hamar mezako bi txanda izango zituzten Fernandoren ama (Maria Ruiz Irarrazabalgoa) zenaren arimaren alde (guztira 60 meza). Santa Engraziako ermitari zilarrezko kaliza eta patena emango zizkieten, 3.400 marai inguruko baliokoa.

Fernando Gebarak itsasoko eta lehorreko jende eta merkatariekin, gizon, emakume, kristau, mairu eta juduekin izan omen zituen tratuak, eta haiei zor zitzaiena ondorengoek ordainduko zuten. Ondasunetatik 8.000 marai hartu eta horietatik 1.500 Aizarnako elizako lanak ordaintzeko izango ziren, 500 marai Zestoako elizako lanetarako, 1.000 marai Itziarko elizarako, 500 Zumaiako San Pedro elizarako, 500 Aizarnazabalgo elizarako, 500 Urdanetako San Martin elizarako, 500 Oñatiko San Migel elizarako, 500 Arantzazuko elizarako, 500 Gasteizko Madalena ospitalerako eta 1.000 marai fedegabeek gatibu zeuzkaten kristauak askatzeko.

Beste 1.500 marai emango zituzten Fernando Gebararen oinordekoek limosnatan, honela banatuta: Getariako Salvatore elizari 250 marairaino, Getariako San Antoni 60 marai, Getariako Ugarteko San Gregori 60 marai, Getariako Madalena (ospitale) eta pobreei 100 marai, Askizuko San Martini 60, Getariako San Prudentziori 60, Zumaiako hondartzako Santiagori 60, Zumaiako Andre Mariaren ospitaleari 60, Zumaiako Santa Klarari 60, Zestoako San Lorente Beangoari 60, Oikiako San Bartolomeri 60, Dornute-giko (Artadiko) San Migeli 60, San Kristobal Irozte-



20.20. irudia. Aizarnako elizako Altzolarats jauregikoen kapera.

gikoari (Aizarnazabalgo Saiazkoari) 60, Aiako Arbostaingo San Andresi 60, Elkanoko San Pedrori 60, Zarauzko hondartzako San Pelaiori 60, Altzolako San Romani 60, Iturriozko San Joani 60, Aizarnako parrokiako pobreei 50, bertako lanparako argitarako 30 eta Hondarribiko Guadalupeko Andre Mariari 1.000 marai.

Aizarnan Fernando Gebarak zeukan etxea, Joan Otxoa Aizpurukoa arreba Graziarekin bizi zena, ospitale izango zen. Pobreak biziko ziren han. Bi ohe ipiniko zituzten eta bertan pertsona zintzoak egongo ziren. Ospitale-etxeak berea izango zuen baratzea. Etxe ondoan eraikitzen hasita zegoen horma amaitu egingo zuten, eta ondoan zegoen sagastia ere ospitalearena izango zen.

Ospitaleak Aizarnako elizan, Fernandoren hilobi-ko aldarean, urte guztietako larunbat guztietan meza

emanaraziko zuen haren eta Altzolaraskoen arimen alde. Altzolarasko dorre edo jauregiko hurrengo jabeek, ospitalea eta sagastia edukita, horma bukatzea eta larunbateroko meza eman nahiko ez balute, aldi bakoitzean Aizarnako elizako erretore, benefiziadu eta diruzainek beretzat hartuko zituzten etxea eta sagastia, eta meza emanarazi egingo zuten. Dena den, Altzolarasko jabeek ospitalearen administrazioa beren gain hartu nahiko balute, aldi guztietan elizako erretorea, bezefiziaduak eta diruzainak behartuta egongo ziratekeen ospitalea, ermita eta sagastia Altzolaraskoei itzultzeraz.

Altzolarasko dorreko oinordekoek Fernando Gebarak zituen zorrak, behar bezala egiaztaturik, ordaindu egingo zizkieten hartzekodunei. Ondoren Fernando Gebarak bere kontu-liburuko zenbait harreman eta traturen idazpenak idatzi zituen. Besteak beste, tratuak hauekin izan zituen: Martin Otsangorekin, Larretxe etxeokarekin, Mitxelkorekin, Migel apaizarekin, Iñigo Lopezekin, Joan Perezekin, Bernal Perezekin, Aizarnatekoarekin, Joan Azpiazurekin (Ezurin), Matxin Azpiazurekin, Paskualekin... Tratuak Zestoa, Zumaian, Azpeitian, Getarian, Arroan, Urnietan eta abarren egin zituen Fernando Gebarak. Erabilitako salgaiak, besteak beste, hauek izan ziren: zaldiak, zakuak, artatxikia, bastak, Siziliako garia, idiak eta orga, burdin mea, upa-ohol edo tabilak, upe-lak, etab.

Ondoren Fernando Gebarak errepikatu egin zituen inguruko eliza, ermita eta ospitaleei eman beharreko limosnak, baina diru kopuru ezberdina zehaztuz. Honako limosna hauek emango zitzaizkien ondorengo eliza eta ermitei: Zarauzko San Pelaiori (100 marai), Zumaiako hondartzako Santiagori (100 marai), Zumaiako Santa Klarari (100), Zumaiako ospitaleari (100) Getariako San Antoni (100), Getariako Ugarteko San Gregoriori (100), Getariako Madalenari (ospitaleari) (150), Getariako San Prudentziori (200), Askizuko San Martini (100), Oñatiko San Migeli (300), Arantzazuko Andre Mariari (500) eta Guadalupeko Andre Mariari (1.000).

20.21. irudia.  
Oikiako  
Otsangobekoa



Fernando Gebara Elena Lopez Zumaiakoa emaztea baino lehen hiltzen baldin bazen eta emazteak bien seme-alabekin alargun zintzo izaten jarraitu nahi baldin bazuen, ondasun guztiak edukitzeko eta administratzeko ahalorde osoa izango zuen bizialdian, eta seme-alaben tutore eta kudeatzaile izango zen. Elena alargunak erabakiko zuen Altzolarasko oinordeko zein seme edo alaba izango zen eta ondasunak nola banatuko ziren. Dena den, une horretan Fernandoren Beltran Ibañez Gebarakoa aita eta anaiak bizi baldin baziren, Elena emazteak haiei eta beste senideei aholkua eskatuko zien, eta denak ados jarriko ziren, baina alargunaren borondateari aurka egin gabe.

Elena emaztea alargundu eta berriz ezkonduko balitz, Altzolarasko ondasunen administratzaile Beltran Ibañez aita eta Fernandoren anaiak izango ziratekeen. Haiek hartuko zuten beren gain seme-alaben tutoretza ere. Elena alargun egonik seme-alaba guztiak hiltzen baziren, alarguna geratuko zen ondasun

guztien jabe. Seme edo alabaren bat ezkontzen zenean, Elena alargunak dohaintza egin ahal izango zion (ikus [XV. m. 244] agiria).

Testamentu-zirriborro honetan argi ikusten da Fernando Gebararen aita Beltran Ibañez 1499an artean bizi zela, eta ama (Maria Ruiz Irrazabalgoa) hila zela. 20.4.5. atalean ikusiko dugunez, Beltran Ibañez Gebarakoa Getarian bizi zen 1499. urtean, eta bertako alkate zen.

Bestalde, Fernando Gebara gero Valladoliden hobiratu zuten, San Martingo elizan, eta bertan 2006. urtean, konponketa-lanak egiten ari zirela lurrean aldare inguruan hilarriak azaldu ziren. Hilarrietako inskripzioak 1597-1716 bitartekoak omen dira<sup>32</sup>. Hilarri horietako bitan gebaratarren armarriko makalhostoak daude, eta, gure ustez, XV. mendearen amaieran edo XVI. mendearen hasieran hildako Fernando Gebararen hilobikoa izan daiteke bietako bat.



20.22. irudia. Valladolidko San Martin eliza. Hilobiko lauzaren goiko ezkerreko laurdenean Gebara etxeko armarrria dago, bere hiru makal-hostoekin.

#### 20.4.2. Fernando Gebara eta Zumaiako koinatuen arteko auzia

1499. urtean zehar Zestoako Fernando Gebarak Lope Fernandez Zumaiakoa zenaren seme Lope eta Antoniorenkin 120 dukat kobratzeko zuen auziak aurrera egin zuen.

- 1499-III-22an, Azpeitian, Fernando Gebarak zin egin zuen Francisco Vargas korrejidorearen eta Joan Martinez Aranburukoa eskribauaren aurrean. Fernandori galdera egin zioten, ea Joan Saez Beroikakoaren oinordekoei zorra bere gain hartu baino zenbat den-

bora lehenago ordaindu zuen. Lope Fernandez Zumaiakoa kanpoan zela eman omen zien zedula Fernandok, Beroikakoaren oinordekoei 120 dukat ordaintzeko obligazioa hartuz. Bestela Lope Fernandez zenari ondasunak exekutatu egingo omen zizkionten. Hogei bat egun geroago Fernandok 96 dukat ordaindu zizkien.

Fernandok dukatak Lope Fernandezi ordainagiria eman baino lehen ordaindu zituen galdetu zioten. Ordainagiria eman ondoren ordaindu omen zizkien dukatak Fernandok Beroikakoei. Pedro Irigoien, Luis Alzaga eta Diego Haro izan ziren aitorten haren lekuko.

- 1499-V-7an, Azkoitian, Francisco Vargas korrejidoreak epaia argitaratu zuen. Lope Fernandez zenaren Lope eta Antonio semeen ondasunak bahitu eta exekutatzeko hasiak baziren ere, Lope eta Antonio eta beren ondasunak libre utzi zituen. Auzi-gastuak Fernando Gebarak ordainduko zituen. Migel Perez Idiakaizkoa eskribaua, Martin Martinez Lasakoa eta Joan Otxoa Zorrobiagakoa prokuradoreak aurrean ziren lizentziatuak epaia eman zuenean.

- 1499-V-18an, Azkoitiko errebalean, Fernando Gebararen prokuradoreak, Martin Martinezek, epaiaren aurka gora jotzea eskatu zuen, eta korrejidoreak baiezkoa eman zion, baina lehenbizi Lope eta Antonioren ondasunen exekuzio-prozesuagatik Probin-tziako Bernal Medina merioari zegokion saria ordaindu beharko zion. Lekuko Joan Martinez Aranburukoa eta Hernando Martinez Intsaustikoa azkoitiarrak izan ziren.

- 1499-IX-10ean, Zumaian, Lope Fernandez Zumaiakoa zenaren seme Lope eta Antoniok eta Migel Agirre apaiz eta tutoreak Joan Otxoa Zorrobiagakoari ahalordea eman zioten auzitan haien prokuradore edozein epaitegitan izan zedin. Ordura arte egin zuen lana ontzat eman zioten. Martin Diaz Mirubikoa

errege-ganberako eskribauak idatzi zuen agiria. Lekuko Lope Ibañez Sasiolakoa, San Joan Markina errementaria eta Iñigo Fernandez Dornutegikoa, apaiza, izan ziren.

- 1499-IX-17an, Tolosan, Migel Perez Idiakaizkoa eskribauaren aurrean, Joan Otxoa Zorrobiagakoa bere ahalorde-agiria aurkeztu zuen. Korrejidoreari Joan Otxoak jakinarazi zionez, prozesuan bere prokuradore-ahalordea agertzen ez zelako ekarri zion. Martin Martinez Lasakoak, Fernandoren prokuradoreak, kopia eskatu zuen. Lekuko izan ziren Bernal Medina merioa eta Joan Martinez Aranburukoa.

- 1499-X-25ean, Valladoliden, Lope eta Antonio Zumaiaren izenean Pedro Arriola prokuradorea Errege-entzutegian azaldu zen. Fernando Gebarak Gipuzkoako korrejidorearen aurrean izandako auziaren prozesua ez omen zuen han aurkeztu nahi, auzi hura luzatzearen. Aurkeztaraz ziezaiotela eskatu zien epaileei. Eskaeraren kopia Fernando Gebararen Anton Oro prokuradoreari eman zioten, erantzun zezan.

- 1499-X-29an, prozesua itxita eta zigilatuta Valladoliden aurkeztu zuten apelazio mailan.

20.23. irudia.  
Zumaiako  
Dornutegiaundi.



- 1499-XI-5ean Pedro Arriola prokuradoreak idaztia aurkeztu zuen. Gipuzkoako Vargas korrejidoreak emandako epaia zuzena zen eta berretsi egin behar zuten.

- 1499-XI-8an Anton Oro prokuradoreak, Fernando Gebararenak, eske-agiria aurkeztu zuen. Francisco Vargas lizentziatuak emandako epaia oker zegoen eta deuseztatu egin behar zuten. Frogak aurkezteko aukerarik ez omen zioten eman Fernandori, eta kontuliburuak ere ez omen zituzten erabili 120 dukateko zorra frogatzeko. Bestalde, prozesua hara berandu iritsi bazen, Valladolidko eskribauak gordeta zeukalako izan omen zen.

- 1499-XI-14an Pedro Arriolak bere eskeari eutsi zion. Gipuzkoan nahi adina lekuko aurkezteko aukera izan omen zuen Fernandok, baina ez omen zuen ezer frogatu.

- 1499-XI-15ean Anton Orok auzia amaitutzat ematea eskatu zien epaileei (ikus [XV. m. 245] agiria).

Hortik aurrera ez dugu auzi honen berririk. Bertan behera geratu zen, eta, agian Fernando Gebara hurrengo urtean edo hil egin zelako, ez zuen aurrera egin.

### 20.4.3. Joan Gartzia Lasakoa eskritura eske

1499-XII-27an Zestoako Martin Perez Iribarregoa alkatearen eta Domingo Amilibia eskribauaren aurrean, Joan Gartzia Lasakoa azaldu zen. Aurreko urtean Joan Lopez Amilibikoak eskribauaren aurrean Aiako Joan Mendarorekin eta Martin Aia edo “Matxin Egiarekin” egindako obligazio-agiriaren kopia nahi zuen.

Alkateak Domingo Amilibiari aita Joan Lopez Amilibikoa eskribau zenaren erregistroetan agiria bila zezala agindu zion. Agiria Zestoako Joan Martinez Ibañetakoa eskribauak eta Fernando Olazabal maisuak (medikuak) aztertu eta, zin eginda, sinadura Joan Lopez Amilibikoa eskribauarena zela aitortu zuten. Agiriaren kopia egin zezala agindu zion alka-



20.24 irudia. Aizarnako Iribarrenaundi baserria.

teak Domingo Amilibiari. Lekuko hiru zestoar hauek izan ziren: Martin Lasao, Martin Azpe eta Martin Fernandez Edarritzagakoa.

Kopia originalaren berdina zela aitortzeko lekuko izan ziren Martin Otxoa Artazubiagakoa, Esteban Artazubiaga anaia eta Domingo Zabala zestoarrak. Lasako burdinolarako egur-ikatzza egiteko aiarrek hartu zuten konpromisoari buruzkoa zen agiri originala, 1498-II-25ekoa (ikus [XV. m. 246] agiria).

#### **20.4.4. Veneziarrek Fernando Leizaolaren itsasontziari egindako eraso**

1499-III-5ean *Errege Katolikoek* Ocañako hiribildutik beren erreinuetako agintariei errepresalia-gutuna bidali zieten, zenbait veneziarrek Fernando Leizaola debarrari itsasontzia lapurtu eta erre egin ziotelako.

Fernandoren itsasontzia 500 upeleko edukierakoa zen, *Marieta* izenekoa. Napoliko itsas armadan ibili zen lehenbizi, baina urte eta erdi inguru lehenago (1497aren amaiera aldera) armadatik libratuta Bartzelonara iritsi zen. Handik, kargatuta, Napolira egin zuen bidaia, eta hara iritsi zenean Saladino kondea topatu zuen. Han kondeak pleitatu egin zion ontzia, errege-zerbitzuan harantzago joan zedin. Eguraldi txarra egin zielako, itsasontzia Tunisko hondartzara heldu zen.

Tunisen hiru galeaza veneziar<sup>33</sup> zeuden, Bernardo Cigona kapitainaren agindupean. Patroi Antonio Contaria, Gabriel Soranço, mizer Filipo Trebejan, Luis Pisacani eta beste zenbait ziren, denak veneziarrak.

Errege-erreginak bakean zeuden garai hartan veneziarrekin, baina handik egun gutxitara aipatutako hondartzara 500 upeleko edukierako itsasontzia iritsi zen, Luis Pisacanirena. Gauetz isilpean veneziarrek itsasontzietara armak sartu zituzten. Fernando Leizaola lasai zegoen 1497. urteaz gero veneziarrekin bakean zeudelako, baina veneziarren ontzi guztiek bat hartuta eraso egin zioten kanoikadaka. Leizaola-

ren marinel asko hil zituzten, eta gero veneziarrek itsasontzian zegoen guztia lapurtu zioten. Kaskoa hutsik utzi zuten, eta, azkenean, su eman zioten. Guztira urrezko 5.000 dukat baino gehiagoko kaltea egin omen zioten. Ontzian zeuden arropa eta diruak ere, Gabriel Santxezenak, lapurtu egin zituzten (beste 5.000 dukat).

Ondorioz, errege-erreginei erremedioa eskatu zien Leizaolak. Veneziako dukearentzat gutuna egin zezatela eskatu zien. *Errege Katolikoek* gaiari buruzko informazioa jaso zuten. Kalteak balioetsi ere egin zituzten. Fernando Leizaolari ahalordea eman zioten errepresaliantan eskubidea izan zezan. Aurkarien ondasunak enkantean saldu eta zorra jaso ahal izango zuen. 3.850 dukat eta auzi-gastuak jasoko zituen<sup>34</sup>.

#### **20.4.5. Gipuzkoako Batzar Nagusiak eta beste zenbait gai**

1499. urtean udaberriko Gipuzkoako Batzar Nagusiak Erreterian bildu ziren. Aurreko urteko azaroan Debako Batzar Nagusietan Martin Ruiz Olasokoa, Otxoa Iñiguez Aurgastekoa eta Joan Martinez Ariztizabalgoa izendatu zituzten Gipuzkoako errepideak konpontzeaz ardura zitezen. Hala ere, Martin Ruiz Olasokoak ez zituen ongi ikertu bideak, eta Erreteriarako Batzarretan Martinen Hernando Ganboa semeari eman zioten ahalordea, aitzak errepideak konpontzeko zituen eginbeharrak bere gain har zitzan<sup>27</sup>. Erreteriarako Batzar Nagusi hauen aipamenik ez dugu Debako Udaleko artxibotik kanpo beste inon topatu.

Gipuzkoako hurrengo Batzar Nagusiak Getarian izan ziren azaroan<sup>6</sup>. Azaroaren 18-24 bitartean Rodrigo Vela Nuñez Avilakoa korrejidore berria izan zen buru Batzarretan, eta epaia eman zuen Hondarribiaren eta Irunen artean zegoen auzian<sup>4</sup>. Irun Hondarribiko auzoa zen, baina irundarrek Hondarribiko prokuradore sindikoa hil eta probestua larri zauritu zuten. Hondarribiak auzia Batzar Nagusietara eraman zuen, eta bertan ermandade-alkatearen ordezkioak, Beltran Iba-



20.25. irudia. Getariako udaletxeko plaza.

ñez Gebarakoa zestoarrak (hau da, Altzolarats jauregiko Fernando Gebararen aitak), beharrezko testigantzak jaso ondoren bi asmo agertu zituen. Batetik gaizkileak zigortu egin behar ziren, eta bestetik, Irun Hondarribiko auzoa zenez gero, lan hori Hondarribiko agintariei (bertako alkateari eta ofizialei) zegokien. Urte hartan, gainera, Getariako alkate arruntak Beltran Ibañez Gebarakoa eta Joan Perez Baldakoa ziren, biak ere Getariako auzotarrak<sup>19</sup>. Getariako ermandade-alkatea Ibañez Mutiokoa zen urte hartan<sup>16</sup>, eta haren ordezkari (Ermandade-alkatetzan) Beltran Ibañez Gebarakoa.

Getariako Batzar Nagusietan, bestalde, errege-epaiaren berri eman zen Azkoitiak botoa Batzarretan Bergarak baino lehen emateko zuen eskubideaz<sup>35</sup>.

1499-II-13an *Errege Katolikoek* Ocañatik gutuna bidali zieten Gipuzkoako agintariei, hiribilduei atxi-

kitako eskribauei buruz. Eskribauak ezin ziren Kontzejuetako karguetarako aukeratu, baina zenbait lekutan ofizio horietarako hautagaiak falta ziren. Ondorioz, errege-erreginek agindua eman zuten. Eskribaua Kontzejuko alkate, zinegotzi, prokuradore edo ofizial hautatzen baldin bazuten, agintaldian ezingo zituen eskribau-lanak egin, baina agintaldia amaitu ondoren bai<sup>36</sup>.

Geroxeago, 1499-III-29an, Fernando *Katolikoak* Madrildik, ostiral santu eguna zelako, Jesukristoren nekaldia gogoratu zuen haren eta senideen alde egin zezan. Gainera, Mutrikuako Joanito Astigarribiak, Joan Anbrosen semeak, eskea egin zion. Mutrikuarrak Pedro Portuagirre zauritu eta hil egin zuen, eta, ondoren, Joanito hiltzera kondenatu zuten. Gero, ordea, Pedoren senideek barkamena eman zioten mutrikuarrari, eta honek erregeari ere barka ziezaiola eskatu zion.

Erregeak, hilketan baldintza batzuk bete baziren eta beste batzuk betetzeko baldintzapean ontzat eman zion eskatutakoa<sup>37</sup>.

1499. urtean, hain zuzen, Francisco Vargas lizenziatuak utzi egin zion Gipuzkoako korrejidore, merio nagusi eta alkate nagusi izateari. Rodrigo Vela Nuñez Avilakoak ordezkatu zuen hiru kargu horietan<sup>7</sup>.

Bizkaian, berriz, 1499. urtean Markinako armaginek greba egin zuten<sup>30</sup>.

Nafarroan, bestalde, Iruñeko elizbarrutiko Juan Monterde bikario nagusia kezkatu zebilen bertako eliztarren egoeraz, eta apaizak 1499-IV-16rako sinodora deitu zituen. Prestakuntzarik gabeko jende ezjakin ugari zebilen apaiz-lanetan, zenbait ez zen apaiz jantzian ibiltzen, elizbarrutiko epaitegian gehiegi

kobratzen zioten jendeari, etab. Gainera, elizbarrutian Gipuzkoarako eta Valdonsellarako zeuzkan Kanpoko Ofizialek gehiegikeriak egiten zituzten, testamentuetan elizkizunak egiteko ematen ziren aginduak askotan ez ziren betetzen, eta beste hainbat gai konpondu behar ziren Gipuzkoan<sup>11</sup>. Sinodoaren erabakiz, aurretzean Donostiako eta Unicastilloko Kanpoko Ofizialek ez zituzten auzi kriminalak, benefizioei edo ezkontzei buruzkoak epaituko. Auzi haiek Iruñean epaituko ziren<sup>38</sup>.

1499-V-12an Zesar Borgia (Valentinoisko dukea eta Alexandro VI.a aita santuaren semea) Nafarroako Joan III.a Albretakoa erregearen arreba Karlotarekin ezkondu zen Bloisen (Tours eta Orleansen artean)<sup>39</sup>. Nafarroako errege-erreginek Aita Santuarekiko harremanak hobetu egin zituzten, eta hurrengo urtean Alexandro VI.ak Joan erregearen Amaneo anaia kardinal izendatu zuen<sup>31</sup>.

## 20.5. 1500. URTEA

### 20.5.1. Pagio baserriaren salmenta

1500-I-23an, Joan Baltzola debarrari (orain Zestoakoa den Baltzolakoari) Pagio baserria saldu egin zioten Joan Pagino, Domingo Pagino eta honen emazte Maria Lopez Elorriagakoak. Joan Pagino Zestoan bizi zen, eta Domingo eta Maria senar-emazteak Getarian. Joan Baltzola Pagio baserrian zegoen orduan. Pagioko baserria bere lur, baratze, sagasti, mendi, larre, harizti, gaztainadi eta gainerako zuhaitz guztiekin pasatu zen Joan Baltzolarek eskuetara. Pagioko baserriaren lurak Zestoako herri-lurrez inguratuta zeuden. Salmenta-prezioa 334 kintal burdinakoa izan zen. Joan Baltzolak ordaindurik zituen kintal haiek baserriaren truke.

Joan, Domingo eta Maria saltzaileek hainbat lege eta eskubideri uko egin zioten, salerosketa-agiriak zioenari aurka ez ziotela egingo bermatzearen. Aurka

egiten baldin bazioten, 600 kintal burdinakoa isuna ordaindu beharko zuten.

Joan Martinez Mantelolakoak (edo Manterolakoak), errege-ganberako eta Getariako eskribauak, idatzi zuen salmenta-agiria. Lekuko Nikolas Agirre, Martin Usurbil eta Joan Altuza getariarrak izan ziren. Agiria Zestoan edo Getarian egin zela iruditzen zaigu, bertan non egin zuten ipintzen ez badu ere, Joan Baltzola Pagion zegoelako eta eskribaua zein lekukoak getariarrak zirelako.

Salerosketa-agiriari azkenean eranskina ipini zioten, eta, bertan dioenez, hurrengo hamar urtean Domingo Paginok eta Maria Lopez emazteak eskubidea izango zuten, 334 kintal burdina Joan Baltzolari ordainduta, Pagioko baserria bere ondasun guztiekin berreskuratzeke. Berreskuratzen baldin bazuten, ordea, ezingo zioten baserria beste pertsonaren bati



20.26. irudia. Zestoako Pagio edo Pagino baserria.

saldu. Bestela Bandako ikurra zuten 200 doblako isuna ordaindu beharko zuten. Joan Baltzolak, bestalde, hamar urtean ezingo zuen Pagion eraikin berririk egin (ikus [XV. m. 247] agiria).

### 20.5.2. Joan Gartzia Lasakoak, Azpeitiko Kontzejua eta Anardiko lurrak

- 1500-III-29an, Azpeitiko Kontzejuak eta Lasako etxe eta burdinolako Joan Gartzia Lasakoak jaunak auzia zuten, Anardi baserri inguruko mendi eta lurren mugei buruz, Azpeitiko alkateen aurrean. Bi aldeek auzia errazago eta egokiago ebaztearren lau epaile arbitro hautatu zituzten. Azpeitiko Kontzejuak Joan Martinez A Itzagakoa eta Domingo Perez Egurtzakoa eskribau azpeitiarrak izendatu zituen, eta Joan Gartzia Lasakoak Joan Martinez Indanetakoa eskribaua (gure ustez Joan Martinez Ibañetakoa eskribaua zen) eta Joan Otxoa Artazubiagakoa zestoarrak.

Lau epaile arbitroek emandako epaia denek onartuko zuten, eta haren aurka gora jotzerik ez zen egongo. Hamabost eguneko epea izango zuten epaia emateko.

teko, baina epe hura, behar izanez gero, luzatzerik izango zuten. Bi aldeek epaia betetzeko konpromisoa hartu zuten eta bermeak eman zituzten, hainbat lege eta eskubideri uko eginez. Epaia betetzen ez zuenak urrezko 50 dobla ordainduko zituen: erdia epaia betetzen zuen aldearentzat eta beste erdia Azpeitiko Soreasuko elizako lanetarako.

Konpromiso-agiria Azpeitian, Domingo Egurtzaren etxean, idatzi zuen Domingo Eizmendi eskribauak. Lekuko Antso Ubilla, Iñigo Oiartzabal eta Joan Martinez Goiazkoa azpeitiarrak izan ziren.

- 1500-IV-10ean, Azpeitian, aipatutako lau epaile arbitroak Domingo Eizmendi eskribauaren aurrean azaldu ziren. Anardi inguruko lurren auzian epaia emateko epea beste hamabost egunetzat luzatu egin zuten. Lekuko Joan Oiartzabal, Lope Kerexeta eta Domingo Guridi jostuna izan ziren, azpeitiarrak hirurak ere.

- 1500-IV-26an, Azpeitiko harresiz kanpoko plazan, lau arbitro epaileek auzia ebazteko epaiaren berri

20.27. irudia.  
Lasaon Anardi  
gainean  
Galtzada  
baserria zegoen  
lekua.



eman zuten. Anardi baserriaren ondoko Larrea izeneko lurren jabetzaz Azpeitiko Kontzejuak eta Zestoako Joan Gartzia Lasaokoak ziotena entzun zuten. Horrez gain, beste zenbait pertsonarengandik ere informazioa jaso zuten, eta elkarrekin hitz egin ondoren, lau arbitroak ados jarri ziren. Azpeitiko partean Unzanda (Urasandi?) errekatik eta Legazpi (Urola) ibaitik hasita mugarriak ipini zituzten. Badiola aldetik eta Azpeitiko Bikuña batxilerraren lurren ondotik ere ibili ziren.

Mugarriek zehazten zuten lerro itxiaren barruan zegoena Azpeitiko Kontzejuarena izango zen, eta han Joan Gartziak ez zuen eskubiderik izango. Mugarriek zehaztutako lurren kanpoko aldea, ordea, Lasaoko jaunarena izango zen, eta ez Azpeitiko Kontzejuarena. Bi aldeek epaia ontzat eman zuten. Domingo Eizmendi eskribauak idatzi zuen agiria. Lekuko Joan Perez Garaikoa, Domingo Oiartzabal eta Martin Perez Alzagakoa azpeitiarrak izan ziren (ikus [XV. m. 248] agiria).

### 20.5.3. Zumaiko Arteaga adingabeen prokuradoreak

Zumaian, 1500-V-18an, Lope Altzolarats apaizak, Maria Ibañez Altzolaraskoak (Joan Martinez Arteagako ontzi-maisu zenaren amak) eta Martin Arteagak (Joan Martinez zenaren anaiak) prokuradore-ahalordea eman zieten Joan Fernandez Dornutegikoa zumaiarrari eta Martin Otxoa Artazubiagakoa zestoarrari. Lope, Maria eta Martin Arteaga, Joan Martinez zenaren Joan, Joan Ruiz eta Joan Lopez seme adingabeen tutore eta ordezkari ziren (ikus [XV. m. 233] agiria). Joan Martinez Arteagakoa zenak lehen semea, Joan, Katalina Dorrekoa lehen emaztearekin izan zuen, eta beste biak, Joan Ruiz eta Joan Lopez, bigarren emazte Maria Ruiz Arrazubikoarekin.

Joan Fernandez Dornutegikoa eta Martin Otxoa Artazubiagakoa hiru seme adingabeen ordezkari eta prokuradore izango ziren edozein auzitegitan. Ahalorde-agiria Zumaian, Arteaga etxean, Iñigo Iba-



20.28. irudia.  
Arroako  
Akertzaberri.

ñez Dorreakoa errege-ganberako eta Zumaiako eskribauak idatzi zuen. Lekuko Joan Perez Areitzagakoa eta Perutxo Izeta Zumaiako auzotarrak eta Esteban Akertza Zestoako auzotarra izan ziren (ikus [XV. m. 250] agiria).

#### 20.5.4. Batzar Nagusiak Zestean, eta Gipuzkoako bide eta zubiak

1500-V-8an Gipuzkoako Batzar Nagusiak Zestean bilduta zeuden Rodrigo Vela Nuñez lizentziatu eta korrejidorea buru zela. Batzarrek Joan Martinez Ariztizabalgoari, Aleriako Alkatetzako auzotar eta eskribuari, jakinarazi ziotenez, Joan Martinezek, Otxoa Iñiguez Ugartekoak (Segurakoak) eta Hernando Ganboak (Elgoibarkoak) bakoitzak Gipuzkoako hiru bailaretako batean errepideak eta zubiak konponarazteko ardura zuten (ikus 20.3.5. eta 20.4.5. atalak). Konponketa-lan batzuk (1498an hasitakoak) amaituta zeuden, baina beste batzuk ez, eta artean hasi gabeko lanak ere bazeuden. Urriaren erdirako lan guztiek amaituta egon behar zuten. Seguran egingo ziren hurrengo Batzar Nagusietan aipatutako hiru ardura-dunek errepideen egoeraren berri emango zuten, eta han erabakiak hartuko zituzten (ikus [XV. m. 249] agiria).

Hiribilduen arteko komunikazioak hobetu egin nahi zituzten, eta bideak antolatzekeo prozesua hasita zegoen, nahiz eta oztopo ugari izan. Gainera, bide gehienak espazio publiko gisa definiturik geratu ziren<sup>40</sup>.

Egun eta leku berean, Batzar Nagusietan ordenantza bat onartu zuten Oikiako zubiari buruz<sup>4</sup>. Gure ustez Mantzizidorko zubia zen ordenantzaren helburua.

Beste zubi aipagarri bat Iraetakoa zen. 1500-I-10ean Zestoako Kontzejuan egin ziren kontuetan, liburuan idazpen interesgarria dago. Zestoako Kontzejuko fielak 5.000 marai hartu zituen Iraetako andrearentzat, bertako zubirako<sup>41</sup>. Ordurako nonbait, Zestoako Kontzejuak tratua egin zuen Iraetako etxearekin zestoarrek Iraetako zubitik ezer ordaindu gabe igarotzeko askatasuna izan zezaten. Iraetako zubia bertako etxearena zen, eta Kontzejuak bere saria ordaintzen zion, zestoarrak handik igaro zitezten.

1500-V-11n, Batzarrak Zestean bilduta zeudela, Elgetaren eta Eibarren arteko auzia konpondu zen. Gaia Gipuzkoako Batzar Nagusi eta Berezietan herri bakoitzak izan beharreko eserlekua eta botoa erabaki-



20.29. irudia. Iraetako zubia.

tzea zen. Agiria Anton Gonzalez Andiakoa eskribau fielak idatzi zuen, eta lekuko Hernando Gebara, Joan Perez Lilikoa (edo Idiakaizkoa) eta Sebastian Artazubiaga zestoarrak izan ziren<sup>42</sup>.

Gipuzkoako korrejidore, alkate nagusi eta merio nagusi Rodrigo Vela Nuñez izan zen 1500. urtean<sup>7</sup>, eta haren agintaldiak 1505. urtera arte iraun zuen<sup>2</sup>. Gainera, zenbait urtetan izurriterik izan ez zuten zergo, biztanleria ugaltzen ari zen. Ondorioz, errebalak sortu ziren hiribilduetan, eta Frantziako erreinuko mugan zeuden hiribilduentzat arazo bihurtu ziren, babesten zailak zirelako<sup>7</sup>. Donostiak, adibidez, 1500. urtean 4.500 biztanle omen zituen, eta haietako 3.000 bizi ziren harresien barruan. Harresi zaharrak XV. mendearen amaieran indartu zituzten<sup>43</sup>.

Gipuzkoako Batzarretan hiribildu bakoitzeko ordezkariak beren eserlekua zeukaten, eta botoa ematen zutenean ere hiribilduek ordena jakin batean ema-

ten zuten botoa. Ondoren eserlekuen ordena emango dugu, hiribildu bakoitzaren ondoan parentesi artean zenbat sukalde zegozkion eta botoa emateko zenbatgarren postua zuen adieraziz.

Korrejidorearen ezker aldean hiribilduen eserlekuak honela zeuden ordenaturik: Donostia (213 eta 1/3, 1.a), Azpeitia (130, 4.a), Azkoitia (96, 6.a), Deba (85, 9.a), Mutriku (83 eta 1/2, 10.a), Elgoibar (64, 11.a), Hondarribia (58, 14.a), Zarautz (20, 19.a), Elgeta (28, 21.a), Usurbil (28, 22.a), Urretxu (12 eta 1/2, 24.a), Orio (5, 27.a), Gatzaga (11, 29.a).

Korrejidorearen eskuinaldean hiribilduak honela zeuden ordenaturik: Tolosa (356 eta 1/2, 2.a), Segura (176, 3.a), Arrasate (128, 5.a), Bergara (124, 7.a), Ordizia (100, 8.a), Errenteria (27 eta 2/3, 13.a), Getaria (50, 15.a), Zestoa (49, 16.a), Zumaia (34, 18.a), Eibar (30, 20.a), Sorluze (26, 23.a), Leintz bailara (45, 28.a).

Eskribau fielaren eskuinean hiribilduen eserlekuak ordena honetan zeuden: Hernani (35 eta 1/3, 17.a), Aiztondoko Alkatetza Nagusia (70 eta 1/3, 26.a), Oiartzungo unibertsitatea (56, 30.a).

Eskribau fielaren ezkerrean Alkatetza Nagusi hauek zeuden: Areria (91 eta ?, 12.a) eta Saiaz (102 eta 1/2, 25.a)<sup>44</sup>.

Gipuzkoan garai hartan, XV. mendean, hiribildutan kokaturik ehun bat eskribauk lan egiten zuten, eta horietatik dozena bat Donostian bizi zen.

Gipuzkoako biztanleek, orduan, auzitara joan nahi baldin bazuten, lehen instantzia herriko alkatearena zen, eta bigarren instantzia Probintziako auzitegia.

Hirugarren instantzia Errege-kantzelaritza zen, eta *Errege Katoliko*en garaian egoitza Valladoliden finkatu zuen. Laugarren eta azken instantzia Gaztelako Kontseiluko Auzitegia zuten, baina hara munta handiko prozesuak baino ez ziren iristen<sup>45</sup>.

### **20.5.5. Gipuzkoarrak itsasoan, eta beste zenbait gai**

Neurri handi batean itsasora begira eta itsasotik bizi zen herri bat Getaria zen. 1500. urtean Getariako biztanleen errolda osoa egin zen, eta guztira 373 herritarren izenak jaso ziren. 335 harresi barruan bizi ziren, eta 38 harresietatik kanpo. Guztira 1.600-1.700 pertsona bizi ziren Udalerrian. Haietako batzuk jatorriz zestoarrak ziren, eta aipatzekoak dira honako hauek:



---

20.30. irudia. Zumarraga. Migel Lopez Legazpikoaren jaiotetxea.

Anton Arrona (herriko aberatsena), Joan Perez Amilibikoa (ogia erretzeko labea zuen) eta Martin Joan Amilibia. Horiez gain famatuak dira Domingo Sebastian Elkano (Joan Sebastian Elkanoren aita), Katalina Portukoa (Joan Sebastian Elkanoren ama), Otxoa Martinez Portukoa eskribaua, etab.<sup>46</sup>.

Garai hartan, 1500-1505 bitartean, Zumarragan Migel Lopez Legazpikoa jaio zen, gero nabigatzaile eta konkistatzaile famatu izan zena. Garai bertsuak jaio zen, halaber Joan Areitzaga Gebara, apaiz eta nabigatzailea, Joan Sebastian Elkanoren bigarren espedizioan, 1525ekoan, kapilau gisa parte hartu eta munduari bira ematen saiatu zena. Zenbait historialariren ustez (Jose Artetxe azpeitiarraren ustez<sup>47</sup> edo Asentxio Elustondoren ustez<sup>48</sup>, esaterako), jatorriz Arroako Areitzaga baserrikoa zen. Gure iritziz ere horixe da hipotesirik sendoena, haren bizialdiko zenbait agirik diotena kontuan hartuta.

Garai hartan itsasoz oso urrutira iristea lortu zuten euskal itsasgizonek, baina urruti haietako portuetan merkatariek konfiantzazko jendea eduki nahi zuten ordezkari gisa, salerosketak nolabaiteko segurtasunez egin nahian. Gainera portu haietan hainbat hizkuntza erabiltzen zen eta hainbat jatorritako jendea ibiltzen zen. Ondorioz, euskaldunek urrutiko portuetan ere elkarren berri izaten zuten eta elkartu egiten ziren. Euskara oso hizkuntza baliagarria zuten merkataritzako tratuak egiteko, arrotzek ulertzen ez zutelako. Ingalaterra, Flandes eta Italiako portuetan euskara sekretuen hizkuntza zen, oso egokia nazioarteko negozioetarako.

Horrez gain, euskalkien bidez edozein euskaldunek laster jakin zezakeen solaskidea gutxi gorabehera nongoa zen. Gainera, euskaldun guztiak erlijio berekoak ziren, eta horrek ere elkarrenganako konfiantza areagotu egiten zuen<sup>49</sup>.

Bestalde, 1500. urtea zorigaiztokoa izan zen Aizarnako elizarentzat; dirudienez erre egin baitzen<sup>50</sup>. Zorigaiztokoa izan zen, halaber, Iñigo Belez Gebarakoa Oñatiko kondearentzat, urte hartako apiri-

lean, Valladoliden, hil egin zelako<sup>51</sup>.

Urte berean lortu zuen beste gebaratar batek, Nikolas Gebarak, errege-mesedeak, Oikiako Igartzako (orain "Kondekoa" izeneko etxeko) burdinolako "albala eta hamarren zaharra" deitutako zerga edo alkabala jaso ahal zezan<sup>8</sup>.

1500. urtean Beltran Ibañez Oñazkoak, Loiolako jaunak, bi saroï saldu zituen 110na dukatean. Bata Azpeitiko Soreasukoa zen, eta bestea Azkoitiko Aitolakoa. Biak ere Azkoitiko Kontzejuari saldu zizkion, baina Aitolako saroiaren salmentagatik gero auzitan ibili ziren<sup>2</sup>.

Garai hartan Azkoitian indar hartzen ari zen beste familia bat, Idiakaitz etxekoena zen. Azkoititik Zestoako Lilira, Debara eta Donostiara zabaldu ziren. Zestoako Lili-Idiakaitz (edo Idiakaitz-Lili) deiturakoak Bergarako Zabala etxekoekin senidetu ziren. Zabala etxekoak, berriz, Elgoibar, Eibar, Zestoa, Areria eta Ordizian bizi ziren. Lasako burdinolako etxera ere zabalduko ziren<sup>52</sup>.

1500. urtean Iruñeko katedraleko lanak amaitu egin zituzten, eta aldi berean, Nafarroako Joan III.a Albretekoa eta Katalina errege-erreginek Iruñeko elizbarrutia artzapezpikutegi bihurtzeko proiektua bultzatu zuten. Mendean Tutera, Zangoza eta Orreagako elizbarrutiak apezpiku banarekin izango zituzten, eta horrez gain Lescar eta Olorueko elizbarrutiak ere izango zituen artzapezpikutegi berriak. Gainera urte hartantxe Alexandro VI.a aita santuak Joan III.a Albretekoa erregearen anaia Amaneo kardinal izendatu zuen (22 urte besterik ez zuen), eta Comminges, Condom eta Olorueko elizbarrutiak babespean zituen<sup>11</sup>.

Durungaldean, bestalde, 1500. urte inguruan "Anbotoko heresia" deitutako sorgin-mugimenduak indar hartu zuen. Sorginen aurka eliztarrek gogor lan egin behar izan zuten. Sorgin-mugimendu hartan ibilitako bat Joan Migel Zestona zen, Durangoko auzotarra<sup>10</sup>. Joan Migelez Zestoakoa, aitzogilea, Durangoko 1489-IX-3ko agiri batean azaldu zen lekuko gisa



20.31. irudia. Azkoitiko Aitolazar baserria.

(ikus 18.3.7. atala), eta seguru asko pertsona bera izango zen.

1500. urtean, bestalde, Joana *Eroa* (*Errege Katoliko*en alaba) Gaztela eta Aragoiko erreinetako oinordeko bihurtu zen. Aurrez Joan anaia hila zen

(1497), eta arreba Isabel ere bai (1498). 1500. urtean, berriz, Isabel arreba zenaren Migel semea hil zen. Beraz, lehen postuan zegoen gurasoen erreinuak oinordetzan hartzeko. Gainera, 1500. urtean Ganten Karlos semeaz erditu zen, gero enperadore izango zenaz<sup>1</sup>.

## 20.6. HOGEIGARREN KAPITULUKO OHARRAK

- <sup>1</sup> PFANDAL, L. Juana la Loca. Austral bilduma, 17. Espasa-Calpe, S.A. Madril, 1945. (24, 62. or.).
- <sup>2</sup> ORELLA UNZUE, J. L. Instituciones de Gipuzkoa y Oficiales Reales en la Provincia (1491-1530). Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (100, 101, 105, 106, 107, 109, 125, 203, 284, 289, 325, 327. or.).
- <sup>3</sup> FERNANDEZ DE LARREA ROJAS, J. A. *Los señores de la guerra en la Guipúzcoa medieval*, in Los señores de la guerra y de la tierra: nuevos textos para el estudio de los Parientes Mayores guipuzcoanos (1265-1548). Iturriak, 2. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 2000. (31. or.).
- <sup>4</sup> ORELLA UNZUE, J. L. *Instituciones de Gipuzkoa en el Libro de los Bollones*, in El Libro de los Bollones. Iturriak, 1. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (171. or.).
- <sup>5</sup> LEMA PUEYO, J. A. eta beste. El triunfo de las elites urbanas guipuzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la Provincia (1412-1539). Iturriak, 3. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 2002. (234-237, 241-243. or.).
- <sup>6</sup> ELOSEGI, J. *Juntas Generales y Particulares de Guipúzcoa. Índice de las celebradas en los siglos XIV y XV*, in Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País. XXXIV. urtea. 3 eta 4. koadernoak, 1978. (560. or.).
- <sup>7</sup> TENA GARCIA, M. S. La sociedad urbana en la Guipúzcoa costera medieval: San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía (1200-1500). Donostia, 1997. (250, 251, 373, 374. or.).
- <sup>8</sup> DIEZ DE SALAZAR, L. M. Ferrerías guipuzcoanas. Aspectos socio-económicos, laborales y fiscales (siglos XIV-XVI). Donostia, 1977. (351, 395, 403-405, 408. or.).
- <sup>9</sup> XX. 1496-IX-29/X-10. Petición de traslado de una escritura de apeos del año 1496. Fieles del concejo de la villa de Azpeitia. Azpeitiko Udaleko Artxiboa. Organos de gobierno. Alcalde. Alcalde como delegado gubernativo. Expedientes judiciales. 775-11. (6, 7, 11. or.).
- <sup>10</sup> LABAIRU GOIKOETXEA, E. Historia General del Señorío de Bizcaya. III. alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo, 1968. (112, 517- 524, 711-723. or.).
- <sup>11</sup> GOÑI GAZTANBIDE, J. Historia de los obispos de Pamplona. s. XIV-XV. II. alea. Iruñea, 1979. (658, 659, 663-666, 668, 669. or.).
- <sup>12</sup> MITXELENA, K. Textos arcáicos vascos. Minotauro argit. Madril, 1964. (63-65. or.).
- <sup>13</sup> BARRENA OSORO, E. eta MARIN PAREDES, J. A. Gipuzkoako Komunikabideen Historia. 1/ Aintzinaroa eta Ertaroa. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1991. (152, 156, 238, 239. or.).

<sup>14</sup> XX. Valladolidko Kantzelaritzako Artxiboa. Pleitos civiles. Zarandona y Balboa. Pleitos olvidados. 1015/7. (72-76. or.).

<sup>15</sup> LEMA PUEYO, J. A. eta beste. Archivos Municipales (1260-1520): Antzuola (1489-1497), Aretxabaleta (1506), Eskoriatza (1260-1519) y Leintz-Gatzaga (Salinas de Léniz) (1372-1516). Fuentes documentales medievales del País Vasco, 116. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 2003. (191, 195-197. or.).

<sup>16</sup> LEMA PUEYO, J. A. *Dos instituciones en la formación de Gipuzkoa: las Alcaldías de la Hermandad y las merindades del corregimiento*, in Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (89, 91. or.).

<sup>17</sup> ACHON INSAUSTI, J. A. “A voz de Concejo”. Linaje y corporación urbana en la constitución de la Provincia de Gipuzkoa. Ikerlanak, 2. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (331. or.).

<sup>18</sup> ROLDAN GUAL, J. M. *Villas de asiento de las Juntas Generales y Tribunal de Corregimiento de Guipuzcoa (hasta 1550)*, in Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (42. or.).

<sup>19</sup> LEMA PUEYO, J. A. “*Por los procuradores de los escuderos hijosdalgo*”: *de la Hermandad General a la formación de las Juntas de la Provincia de Gipuzkoa (siglos XIV-XVI)*, in El triunfo de las elites urbanas guipuzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la Provincia (1412-1539). Iturriak, 3. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 2002. (91, 93, 243-264. or.).

<sup>20</sup> MARQUES DE TOLA DE GAYTAN. *Parientes Mayores de Guipúzcoa. Señores de la casa solar y palacio de Zarauz, en Zarauz*, in Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País, 1946. (413. or.).

<sup>21</sup> XX. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. V-1497. 197. folioa.

<sup>22</sup> MORA AFAN, J. C. Zizurkilgo Historia, bailaratik hiribildura (1186-1615). Tolosaldea Historia Bilduma, 08. Zizurkil, 2005. (40, 41. or.).

<sup>23</sup> LABAIRU GOIKOETXEA, E. Historia General del Señorío de Bizcaya. IV. alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo, 1971. (16, 17. or.).

<sup>24</sup> HIDALGO DE CISNEROS, C. eta beste. Colección documental del Archivo Municipal de Durango. Tomo II. Fuentes documentales medievales del País Vasco, 21. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1998. (526, 530, 532. or.).

<sup>25</sup> XX. Valladolidko Kantzelaritzako Artxiboa. Pleitos civiles. Varela. Pleitos fenecidos. 1974/2. (79-92. or.).

<sup>26</sup> ROLDAN GUAL, J. M. Colección documental del Archivo Municipal de Hondarribia. Tomo II. Fuentes documentales medievales del País Vasco, 64. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1996. (106-108. or.).

<sup>27</sup> XX. Debako Udaleko Artxiboa. 11. kutxa. XIII. kartularioa, 1. agiria. (8, 9. or.).

<sup>28</sup> ORELLA UNZUE, J. L. *Orígenes De las Juntas de Gipuzkoa*, in Historia de las Juntas Generales y la Diputación Foral de Gipuzkoa. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1992. (20, 78. or.).

<sup>29</sup> BARKHAM, M. *La construcción naval vasca en el siglo XVI: la nao de uso múltiple*, in Historia-Geografía, 3. Cuadernos de Sección. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1984. (104. or.).

<sup>30</sup> ALBIZU, X. eta beste. Euskal Herriko Historia I. (Historiaurretik Nafarroaren konkista arte). Gaiak argit. Donostia, 2004. (169, 172. or.).

<sup>31</sup> LACARRA, J. M. Historia política del Reino de Navarra. III. alea. Nafarroako Aurrezki Kutxa. Aranzadi argit. Iruñea, 1973. (390-392. or.).

<sup>32</sup> ROGRIGUEZ, E. *La iglesia de San Martín reabrirá sus puertas al culto a principios del 2007*, in “El Norte de Castilla”. Valladolid, 2006-XI-7. (10. or.).

<sup>33</sup> Galeazak orduko itsasontzi erraldoiak ziren, 70 bat metro luze eta 16 metro zabal ingurukoak. Hiru mastakoak ziren eta barruan, besteak beste, 64na arraunlari inguru izaten zituzten.

<sup>34</sup> XX. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. III-1499. 73. folioa.

<sup>35</sup> AIERBE IRIBAR, R. M. Documentación medieval del Archivo Municipal de Azkoitia (m. s. XIII-1500). Fuentes documentales medievales del País Vasco, 45. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1993. (249, 250. or.).

<sup>36</sup> XX. Gipuzkoa Artxibo Orokorra. Tolosa. JD IM 2/15/1.

<sup>37</sup> XX. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. III-1499. 87. folioa.

<sup>38</sup> GOÑI GAZTANBIDE, J. *El Oficial Foráneo de San Sebastián del siglo XIV al XIX*. in, Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián. Donostia, 1969. (20. or.).

<sup>39</sup> DUPUY, M. Les Grandes Heures de L'Aquitaine. Librerie Académique Perrin. Paris, 1973. (241. or.).

<sup>40</sup> ACHON INSAUSTI, J. A. Gipuzkoako Komunikabideen Historia. 2/ Aro Modernoa (1500-1833). Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1998. (28, 29. or.).

<sup>41</sup> XX. Valladolidko Kantzelaritzako Artxiboa. Pleitos civiles. Perez Alonso. Pleitos fenecidos. 614/5. (104. or.).

<sup>42</sup> ELORTZA MAIZTEGI, J. Archivos Municipales de Eibar (1409-1520) y de Sorluze/Placencia de las Armas (1481-1520). Fuentes documentales medievales del País Vasco, 97. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 2000. (46, 47. or.).

<sup>43</sup> GARCIA DE KORTAZAR, J. A. *Merkatarien hiribildu bat: 1180-1516*, in Donostiaren Historia. Miguel Artola argit. Donostia, 2001. (24, 25. or.).

<sup>44</sup> LARRAÑAGA ZULUETA, M. *Aproximación al estudio económico de Gipuzkoa a través de las fogueraciones de Juntas*, in *Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (263. or.).

<sup>45</sup> AGINAGALDE, F. B. *Gipuzkoako leinuen aztarna bila (XV-XIX)*. Elkarlanak, 1. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1994. (42, 57. or.).

<sup>46</sup> TXUEKA ISASTI, F. *Getariako erregearen balea eta Donostiako probestua*, in *Boletín LXIV-1-2008*. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte. Donostia, 2008. (137-139. or.).

<sup>47</sup> ARTETXE, J. *Elcano. Austral bilduma, 1504*. Espasa-Calpe, S. A. argit. Madril, 1972 (199. or.).

<sup>48</sup> ELUSTONDO, A. *Antzinako biziera (XVI. m.)*, in *Zumaia 650 urte, hitzaldiak, conferencias*. Zumaiaiko Udala. Zumaia, 1999. (119. or.).

<sup>49</sup> OTAZU, A. eta DIAZ DE DURANA, J. R. *El espíritu emprendedor de los vascos*. Silex argit. Madril, 2008. (128-130. or.).

<sup>50</sup> ERENTXUN ONZALO, J. *Arrona – Aizarna – Oiquina – Aizarnazabal – Iraeta – San Miguel de Artadi*. Donostiako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1975. (40. or.). (Oharra: albiste hau Joan Erentxun historialari zetoarrari baino ez diogu aurkitu, eta ez dakigu zein iturritatik jaso zuen).

<sup>51</sup> AIERBE IRIBAR, R. M. *Historia del condado de Oñate y señorío de los Guevara (S. XI-XVI)*. I. Estudio. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1985. (205. or.).

<sup>52</sup> ALBERDI LONBIDE, X. eta ARAGON RUANO, A. *La pervivencia de los Parientes Mayores en el poder político local de Gipuzkoa durante el período 1511-1550*, in *Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (305, 306. or.).